

Aurrez aurre

R E S S

2001.eko
abuztuaren 22a
648. zenb.



**Arrasateko Udalbatzak
San Juan jai zoriontsuak
opa dizkizue
arrasatear guztioi**



ARRASATEKO UDALA

Ekainean ekinez egina
bi mila eta bat gar enean.


Iraganeko Labeko.

Egitamu dabilta
Teilerixako labean
De-ba goi-ena aldean
tranbia berde bat
tu-tu-a joka tun-tun-elean.
Garaia orduko
helduko balitz
Presoak etxera ekarriz
etxe bat denontzat iragariz.

Eta datorren urtean edo
Deba garden batean
neska eta mutikotxuak igariz.


Ondo passau!

Alkatea



aurkibidea

- Alkatearen agurra 3
- Astearen errepassoa 11
- Kulturaren txokoa 29/30
- Herritarren berbak 5
- Orain eta hemen 12/15
- San Juanak 2001 31/54
- Urteurrenak 6
- Txutxumutxuak 16/19
- Pilota txapelketa 57
- Inkesta 7
- Aurrez aurre 20/21
- Uhinetan barrena 58
- Asteko hitzorduak 8
- Kirolak jokoan 22/26
- Foto zaharra 59/62



ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publizitateak:** Arantzazu Lagunilla, Natalia Martínez eta Izaskun Bolinaga. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar (Tel.: 943 71 23 90) **Disenua:** Alex Azkarate. **Astoburuotako berriemakileak:** Lorea Agiriano. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odrizola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzeratua. **Inprimategia:** Gerfu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta intzienten erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.




Arrasateko Udaleren laguntza.



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza.



Jai biziak bizi.

Alaitasuna, aldarte onak, ustekabeak, jostaketa. Jaiak gozatuz bizitzea. Horra zer opa dizugun guk ere. Horra, **kutxa**k opa dizuna.



kutxa

Zure diruaren balio erantsia.

EMAKUMEON TXOKOA

Ezagutu Bilbo hango emakumeen historiaren eskutik

- **Bidal kulturala:** ekainak 30.
 - Bilboko emakumeen historia ezagutu, Alde Zaharra bisitatuz.
 - Guggenheimera bisita.
- **Prezioa:** 1.000 pezeta langileak, 600 pezeta langabetuak, jubilatuek eta laguntza ekonomikoa jasotzen dutenak.
- **Bazkaria:** Bakoitzak berea eramango du.
- **izena emateko:** Arrasateko Emakume Salla
Tel.: 943 79 41 39

Komiki ez sexisten IV. Lehiaketa

Gizarte ez sexista, komiki ez sexistak

- Gaia librea da
- Nahi duen orok parte hartu ahal izango du
- Euskaraz zein gazteleraz
- Partehartzaileak banaka edo binaka (gidoigilea eta marrazkilaria) aurkez daitezke

Lanak aurkezteko opea: uztailaren 20a, arratsaldeko 14:00etan.

“Gazteen ekimenak” XII. Argazki Lehiaketa

Parte hartzaileak:

- Debagoieneko 13-17 urte bitarteko gazteak
- 18-35 urte bitarteko edozein

Emakume Sallaren sarri berezia (beste batzuen artean): emakumezkoen ikuspuntua, errealitatea, mundua hobekien isladatzen duen argazkia: 500.000 pezeta.
Lanak aurkezteko opea: urriaren 11a.



ARRASATEKO UDALA

Emakume Salla ■

Sanjuanen gaineko gogoetak

Andoni Altzelai / SUDCeko presidentea

Beste San Juanekin alderatuz, aurtengoak lasaia goak dira SUDCen ikuspegitik, nagusi zein txikien danborradak besterik ez baitugu antolatu. Bestalde, ekintza horiek koordinatzeari dagokionez, SUDCeko partaide batzuek daukaten beteranotasuna (20

bat urte lanean) kontuan hartuta, erraz koordinatu dituguegin beharrekoak. Hala ere, eta seguruenik jaio-tze tasaren jaitsieraren ondorioz, Umeen Danborradak arazo txiki batzuk eman dizkigu. Hasiera baten, gure asmoa ikastetxe bakoitzak bere konpainia pres-tatzea zen, baina espero genuen erantzuna ez dugu jaso.

Beste behin, boluntarioei esker, Umeen Danborradari eutsi diogu. Nagusienean, ordea, ez da ezustekorik izan.

SUDCek beste hainbat ekintza antolatu zein babestu ditu orain arte, bai San Juanetan zein bestela ere. San Juanei dagokienez, berriz, iraganean antolatzen genituen erraldoi eta fanfarreen alardeak beste elkarte batzuen esku utzi ditugu. Horrez gain, umeendako sukaldaritza lehiaketa eta nagusien-tzako bakailao lehiaketa bertan behera utzi ditugu. Lehena, jende askok izena eman duen arren, gu bakarrik ezin ginelako kargu egin, eta bakailao txapelketa, azken urteetan ize-

na ematea txikia izan zelako eta gainerako elkarteek zegokien laguntza ematen ez zutelako.

Bestalde, argi dago San Juanak asko aldatu direla. Denboraren poderioz, ohiturak eta modak aldatuz doaz bai

ta egitaraua ere. Iraganean, jaietako egun handia hirugarrena zen. Gaur egun, berriz, jai egun bat besterik ez da. Iraganean, parte hartze handiagoa zegoen eta egunean zehar bizitasun handia zegoen. Egun, ordea, egunez ez dago ia gazterik, ezta eurentza-

ko antolatutako ekintzetan ere. Salbuespena, jaiaren bizkarre-zur diren ekintzak dira (salbea, danborradak, San Juan sua, entzierroak eta kontzertuak), baina gainontzean egunez ez da ia inor ibiltzen eta gauak hartzen du protagonismo osoa.

Herrian jende gutxi gelditzeko arrazoi nagusia bailaran bizi dugun maila ekonomikoa da, poztekoa dena, baina jaiari kalte egiten diona. Jendearen alde egitea saiheste aldera, jai egunak alda daitezke, baina SUDCen ustez, ez lirakeke San Juan egunak aldatu beharko batzuek eguzkia hartzea nahiago dutelako soilik.

“Herrian jende gutxi gelditzeko arrazoi nagusia, bailaran bizi dugun maila ekonomikoa da, poztekoa dena, baina jaiari kalte egiten diona”



aste gazte

■ DIRULAGUNTZAK

•Leonardo da Vinci programa. Europako enpresatan praktikak egiteko aukera. Ikasketak bukatu berriak izanik, lan espe-rientziarik ez dutenendako. Epea: ekainak 15.

•Estatuko Soziologia Institu-tuak ikerketa soziologikoak egi-teko dirulaguntzak. Epea: ekai-nak 30.

•Euskarazko kirol materiala sortzeko dirulaguntzak. Aurtengo gaia surfa izango da, 50 fitxa didaktikoz osatutako lana. Epea: uztaillak 13.

■ LANA

•Nafarroako Foru Erkidego-rako 20 suhiltzaile behar dira. Epea: ekainak 11.

•Berrizko Udalerako, man-tenetze lanetarako langilea, soros-lea, euskara teknikaria, kontrol-langilea eta garbitzailea behar dira. Epea: ekainak 12.

•Urretxuko Udalak udaltzai-nak behar ditu. Epea: ekainak 13.

•Mondragon Unibertsitate-rako goi mailako ingeniari edo lizentziadunendako 20 postu. Epea: ekainak 13.

•Lezoko Udalak gizarte lan-gilea eta liburutegiko arduradu-na behar ditu. Epea: ekainak 14.

•Oreretako Udalerako dan-tza irakaslea behar da (klake eta euskal dantzetako espezialitate-an). Epea: ekainak 15.

•Irungo Udalerako, informa-zio eta tramitazio agentea eta txistulari bandako zuzendaria. Epea: ekainak 21.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
943 77 00 65

urteurrenak

Hamairu milioi jaietarako

■ **155. zenb.**
(1992-06-19)

San Juanetarako aurrekontua 13.375.000 pezeta izan zen. Musika taldeak ekartzeko 2.360.000 pezeta gastatu zituzten, kale animazioan 3.015.000 eta zezenetan 1.050.000. Bestalde, banden kalejirarako eta emanaldietarako 525.000 pezeta. Azkenik, Haurren Egunak, herri bazkariak eta aiton-amonei omenaldiak 1.305.000 pezeta kostatu ziren eta kirol ekintzak 425.000. Herriko plazan, Zaldibarren, Iturripen eta Seberren banatu ziren ekintzak.



Gaztetxeak ere egitaraua

■ **155. zenb.**
(1992-06-19)

Gaztetxean egitarau berezia antolatu zuten San Juanetarako: jaien bezperan trikitilariekin alaitutako herri txikiteoa; gau partean, berriz, "Sistemaren aurkako sorginsu alternatiboa"; 24an, goizeko 07:30ean, jokoak gaztetxean; eta 25ean, eguerdian, zurrakapote dastatzea doan; amaitzeko, 26an Quemando Ruedas eta Heriotza taldeek kontzertua egin zuten.

Jende gehiago kanpora

■ **155. zenb.**
(1992-06-19)

Lantegi askotan hilaren 23tik 29ra jai hartu zuten. Horregatik, jende askok herritik alde egin zuen bidai agentzien arabera, aurreko urteetan baino jende askoz gehiago alegia. Alde egin zutenen artean, gehienak aste-bete igarotzera joan ziren. Asko hondartza aldera joan ziren: Balear Uharte, Kanariar Uharte, Palma de Mallorca, Salou eta Benidormera besteak beste. Eta beste batzuk Sevilla eta Euro Disneyra joan ziren.

besteek esana



Lehiaketetan agertzen dira noizbehinka artelaren atzetik ibiltzen direnak, baina, jakina, gu ez gara "Miguel Angel" eta ez da izaten galerietako arduradunik gure lanen atzetik.

Oraingoz, ikasle izaten jarraitu nahi dut. Leioan Arte Ederretako ikasketak egiten ari naiz eta han jende interesgarri asko ezagutu dut. Bilbon oso gustura nago, artean murgiltzeko hiriak dira egokienak, gustuko ditut hiriak eta ez nuke bat bakarra aukeratuko, guztiek dute xarma eta topatzen jakin behar da»

Eluska Zabalo

MARGOLARIA

Arrasate Irratia


(2001eko ekainaren 19a)

ROUTER COMUNICACIONES, S.L.

ARRASATE

Maalako errebala, 8-behea
Atzekoa (Garibai)
Tel.: 943 71 27 81
Faxa: 943 71 17 85

SALTOKI GLOBALA:



Bost arrazoiengatik erosi behar duzu Euskalteko saltoki globaletan:

- Saltzeko orduan arintasuna
- Telefono kostuetan aurreztea*
- Enpresa-merkatuko alderdi garrantzitsuenen informazioa
- Bezeroekin harreman hobea
- Sakelako telefonoen konponketa bideratzeko zerbitzua

ENPRESA ZERBITZUA:

- Telefono digitalen telefonogunea
- Telefonía mobila
- Internet
- Telefono finkoak 1050
- Hari digital bariko telefonoak (DECT)

ZERBITZU PARTIKULARRAK:

- Arrasaten Euskaltel Telefono mugikorrek konpontzen ditugun bakarrak gara
- Aurreordaindutako Euskaltel pack-ak
- Internet
- Telefono finkoak 1050

Bixamoniari aurre egitteko modu berezirik badauko zu ?

San Juanetan batek baino gehixagok eukiko dau bixamonie



Maria Luisa Martinez
(Etxekoandrie)

Ondo lo egittie. Norberak ikusi biher dau nun daukon bere muga; bihurtu egitten badozu... burue kontroletan jakin biher da.



Petra Mari Inda
(Etxekoandrie)

Guk tanborradien urtetan dogu eta gero afarixe egitten dogu, baiñe ez dogu alkoholik edaten eta hurrengo egunien, nekazute bai, baiñe bixamoniari ez dot eukitten.



Igor Medrano
(Ikaslie)

Jeneralien ez dot eukitten. Edaterakuen kontrolau egitten dot eta ez dot bixamoniari eukitten.



Isidro Elorza
(Irakaslie)

Jaixetan kanpuen lan egittie toketan jat; hortaz, ezin izeten dot parrandari egin. Gaiñe-ra, umiak ditut eta horretxe-kin jai dago... Gomendixue? Mendixen osteratxue egittie.



Mari Martin
(Langillie)

Lo egittie. Neri lo nahikue egitten ixten badustie, pasetan jat.



Raul Garcia
(Langillie)

Eguraldi ona badago, Landara-edo jueten naz eguzkixie hartzera, eta bestela etxien barriri be gauera arte.



Sergio Cobos
(Langillie)

Hurrengo egunien haundixago harrapau...



Nerea Arizmendiarieta
(Ikaslie)

Ohera gox jueten naz, hortaz, ez dot bixamoniari eukitten.

ORTO + LAGUN
O R T O P E D I A

Ondo ibili jaixetan
larrei okertu barik!!

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 245
Tel.: 943 77 09 92 Faxes: 943 - 79 78 14
ARRASATE

ZERBITZUAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Iguatorialdea 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Asteleheneetik
Bankura 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan egun osoa

Arrasate

Asteleheneetik
Bankura 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44
. 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

gaztelu konbo

Gaztelu Konbo perkusio taldeak emanaldia egingo du ekainaren 24an Olarte kaleko Jai

Zale tabernan, 20:00etan.

bilbora irteera kulturala

Emakume Sailak eta Emakumeen Kontseiluak bidaia kulturala antolatu dute Bilbora, hiria eta hango emakumeak ikustera. Ekainaren 30ean izango da, baina izena emateko epea

28an bukatuko da. Emakume Sailean, 943 79 09 00 edo 943 79 41 39 telefonoetan edo emakume@arrasate-mondragon.net helbide elektronikokoan egin dezakezue.

gazte eta sexologia bulegoak

Ekainaren 25etik 29ra, gazte eta sexologia zerbitzuak itxita izango dira. Uztailerako, sexologia zerbitzuaren ordutegia aldatu egingo

da: astelehena eta eguena, 10:00etatik 13:00etara.

goikobaluren deialdia

Datorren ikasturtean Goikobalu Txiki edo Gazten esku hartu gura duten ume eta gazte-

txoek zabalik dute epea. Goikobaluko edozein kideri izena ematea besterik ez duzue.

jesusi etxebarria musika eskola

Zabalik dago datorren ikasturterako Jesusi Etxebarriaren musika eskolan izena emateko epea. Solfeo, kantu koral, piano, akordeoi, txistu, txirula eta gitarra eskolak emango

dira. Gainera, uztailan eskola trinkoak emango ditu. Argibideetarako: 943711767 edo 652713828.

arrasate musikalen jaialdia

Arrasate Musikalen musika jaialdia antolatu du ekainaren 29rako. Herriko hainbat musi-

ka talderen emanaldiak izango dira. Monterronen izango da, 19:30ean.

euskal herria zuzenean

Euskal Herria Zuzenean kontzertura laguntzaile lanetan doazenek bilera izango dute

ekainaren 25ean, 15:30ean, AEDn.

UGARAN

jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA

2001erako Enplegu Publikoaren Eskaintzaren arabera, beheago aipatzen diren funtzionario plazak hornitzeko Oinarri-arauak onartu dira:

a) Sarbide Irekia:

- 1, Euskaltegiko irakaslea
- 1, Osasun laguntzaile teknikoa
- 1, Liburuzain laguntzailea
- 6, Udaltzainak
- 1, Administralari laguntzailea
- 1, Kiroldagietako mantenuko ofiziala

b) Elbarriei zuzendua:

- 1, Administralari laguntzailea

Oinarriak udaletxean ikus edo/eta jaso daitezke. Udalaren WEB orrian ere begira daitezke (www.arrasate-mondragon.net). Apuntatzeko epea iragarki hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean irekiko da.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

Egubakoitza, 22

Ludoteketan eta gazte txokoetan, kamiseta tindaketa

Zapatua, 23

- 12:00 Goloka taldearekin ume animazioa, Seberren
- 19:30 Koadrilen arteko Triki Poteoa
- 23:00 Rock kontzertua, txosnagunean: Anger, Numen eta Versus
- 01:00 Gaubela taldearekin dantzaldia, plazan

Domeka, 24

- 08:15 Txokolate-jana, herriko plazan
- 12:30 80 urtetik gorakoei omenaldia, Abaroan
- 18:00 Arku tiroketa lehiaketa, Zaldibarren
- 18:00 Mus, partxis... partida lasterrak, gaztetxean
- 19:30 Bertso txikiteoa, txosnagunetik hasita. Ainhoa Agirreazaldegi eta Arkaitz Estiballes izango dira
- 20:30 Son Caliente kubatar congaren kalejira
- 24:00 Santa Barbaratik su artifizialak
- 00:30 Son Calienteren emanaldia, Monterron parkean
- 05:00 Kulero eta galtzontzilo herri lasterketa

Astelehena, 25

- 08:15 Txokolate jana, plazan
- 14:30 Bazkaria, gaztetxean. Gero, Herri Olinpiadak, txosnagunean. Bukaeran, txarangarekin txikiteoa
- 20:00 Trapu Zaharra taldearekin Paquetito kale antzerkia
- 22:30 Etzakit taldearekin dantzaldia, plazan
- 23:30 Mikel Urdangarinen emanaldia, Monterron Parkean

**Martitzena, 26**

- 11:00 Kalejira Incansables txarangarekin
- 14:30 Herri bazkaria, Uarkapen
- 17:00 Ume antzerkia Panta Rhei taldearekin, plazan
- 19:00 Incansables txarangarekin kalejira
- 20:00 Rock kontzertua, txosnagunean: Des-Kontrol, Fase Terminal eta Arkada Social
- 20:15-21:30 eta 23:00 Txinparta taldearekin dantzaldia, plazan

egizabal

Oinetakoak eta poltsak

Ondo pasa
jaietan!!

Olarte, 14 • ARRASATE • 943 79 66 01
Bidekurutzeta, 13 • BERGARA • 943 76 12 28



lider **naturala**

MUGARRI



DEBA GARAICO
BANATZAILE OFIZIALA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54

USTEAK USTE

Gutxiestutako jaiak

Beste behin, San Juanak bertan dauzkagu. Hauek, Arrasateko berezko jaiak izanik, ez dute aspalditik merezitako oihartzunik lortu. Aski ezaguna da azken urteetan, jaiak ospatzen diren sasoi beroa kontutan hartuta eta herriko enpresa askok aste bateko jaiak ematen dituztenaren eraginez, herritar pila kanpora joaten direla. Zenbaitzuk alde egiten duten heinean eta gaur egun eguna baino gaua bizitzeko dagoen joeraren eraginez, beste askok ere gauza bera egiten dute girorik ez eta jenderik ez dagoela argudiatuz. Egia da diotena, eta hala ondorioztatu dute jaietako antolakuntzan protagonista garrantzitsuak diren SUDCeke partaideek ere. Baina, era berean, argi dago nahi izanez gero eta beranduegi izan baino lehenago horri buelta emateko aukerarik badagoela. Hala ikusi dute, esaterako, herriko koadrilek. Aurten ere martxan jarri eta egitarau polita antolatu dute batez ere jai "egunak" girotzeko. Poliki-poliki horren moduko ekimenek aberastu ditzakete gutxiestutako jai hauek.

Iker Barandiaran

astea bi hitzetan

■ **Bonba abisua**

Egubakoitz arratsaldean bonba abisua izan zen Mondragoen. Ertzaintzak adierazitakoaren arabera, 18:45ean ezezagun batek deitu zuen esanez Garibai etorbideko automobil batean bonba bat zegoela. Ertzaintzak Garibai etorbidea, Biteri eta Maisu Arano kaleak jendez hustu, sokaz itxi eta aparkatuta zeuden automobiletan bonbarik ez zegoela egiaztatu zuten; hala, 20:00ak inguruan hesia kendu eta berriro ere kalea ireki zuten.

■ **Osoko bilkura**

Berez dagokion data aurreratu eta pasa den egunean egin zuen udalbatzarrik

ekaineko osoko bilkura. Bederatzi gai zituen zerrendan eta guztiak onartu zituen, tartean, eta hiru ordu laurdeneko eztabaida eta gero, herriko Egitarau Orokorra. Horrekin batera, Garagartza auzoko arau subsidiarioen aldaketak ere zinegotzien baietza jaso zuen, horrela, Fagorrek zabaltze plana bete ahal izango du. Horrez gain, herrian obraren bat egitean edukiontzi, hesi babesle, aldami eta gainerako lan tresnak uzteko lurzoru publikoaren erabilera arautzen duen ordenantza ere onartu zuten zinegotziek. Baita azoka plazan hutsik dauden saltoki berezien gaineko emakidak adjudika-

tzea ere. Bestalde, A-20 area (Musakolako industrialdea) kudeatzeko JOMArekin hirigintza hitzarmena sinatzeko proposamenari baietz esan zioten eta 2001eko aurrekontuaren zenbait kreditu aldatzeko espedientea ere onartu zuten. Ordubete eskas iraun zuen batzarrik.

■ **Udako ordutegia**

Udalak oraingo astean udako ordutegia estreinatu du. Eta horren arabera egingo du lan datorren irailaren 17ra arte. Hortaz, udalean zerbait egin behar izanez gero, goizean joan beharra dago. 8:00etatik 14:00ak arte egongo da herritarren dako zabalik.

■ **Punkiak itzulera**

Iluntzeko aurreneko orduetatik hasita gaueko ordu txikiak arte, eta aspaldiko partez, punkiak izan ziren jaun eta jabe Mondragoen. "Portu"ren omenezko kontzertua zela-eta, Monterron jendez gainezka zegoen. Eskizofrenia Rock taldea arduratu zen giroa bertzeaz eta Heriotza taldeak hartu zion txanda ondoren. Anti-Regimen irundarrak ere omenaldirako berpiztu ziren eta gauza bera egin zuen Puñetazok; talde horretan daude "Portu"-ren bi anaia, Juanillo eta Nabo. Oretako Odio taldea etorri ziren gero, aspaldiko kantuak gogoratuz. Eta bizkaitarren bisita ere izan genuen, MCD bilbotarren eskutik. Ume Gaiztuak izeneko taldea izan zen azken aurrekoa (Jokin eta "Portu"ren partetik, Etsaiak taldeko Inigito eta Paulillo aritu ziren jotzen) eta, bukatzeko, jende gehienak espero zuen RIP taldea eskenatokira igo zen; duda barik, nostalgia nagusitu zen orduan Monterrongo ikusleengan. 2.000-3.000 bat lagun izan ziren.



COMERCIOS ENTROCIEN

Arbolapetan!
Olarte, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 27

Alai

Gozoki denda
Aldizkariak

Otalora Lizentziatua, 2
Tel.: 943 79 69 34

Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Zazpi atxilotuetatik, lau aske utzi dituzte

Bostegunez bakartuta egon eta gero, joan den astean Debagoienean atxilotutako zazpi lagunetatik, lau aske utzi dituzte: Nerea Hernández eta Gorka, Aitor eta Iban Astondoa aramaioar anaiak. Aitor eta Iban Astondoa polizia berak utzi zituen aske, hortaz, ez zuten Auzitegi Nazionalako Guillermo Ruiz Polanco epailearen aurrean deklaratu behar izan. Nerea Hernández eta Gorka Astondoa, berriz, epailearen aurrean deklaratu eta gero geratu ziren aske. Laurak kargu barik daude kalean. Beste hirurak, oster, kartzel-

laratu egin dituzte: epaileak adierazitakoaren arabera, Premín Sampedro eta Txus Gokoetxea ETako "Xoxua" komandoa osatzeagatik eta lehergailuak izateagatik. Soto del Real kartzelan daude biak.

Bestalde, epaileak erabaki du Natale Landak ez duela "Xoxua" komandoarekin zerikusirik, baina Ekin taldeko kide izatearren auziperatu du, 18/98 sumarioagatik hain justu. Gaur, egubakoitza, deklaratu du Baltasar Garzón epailearen aurrean. Hura ere Soto del Real kartzelara eramanez dute.

Fagorren aparkalekuen egitasmoa atzeratu dute

Garagartzako Fagor Elektresnak enpresak bere egitasmoak apurtxo bat mugatu eta aparkalekua egiteko ideia bertan behera geratu da, oraingoz, behintzat. Horixe erabaki zuten egubakoitzean Arrasateko Udalak, Garagartza auzoko ordezkariak eta MCCko ordezkariak.

Hain justu, batzarra egin zuten gai hori lantzeko. Izan ere, auzotarrak ez daude konforme Fagorrek egin gura duen aparkalekurako sarrera-irteera auzotik izatearekin. Auzotarrak uste dute euren bizi kalitatea asko kaskartuko dela

hori eginez gero.

IKERKETA

Hori ikusita, Fagorrek erabaki du ikerketa egingo duela, aparkalekuaren sartu-irten horrek auzoan zer-nolako eragina izango duen aztertzeko.

Horrez gain, astelehenean Fagor Garagartzako zabal-kunde prozesua hasteko hitzarmena sinatu zuten Arrasateko Udalak eta MCCk. Horren arabera, lantegia handituko dute, aparkaleku gehiago eraikiko dituzte eta lantegira sartzeko biribila egingo dute, besteak beste.


Euskararen ofizialtasuna

Debagoieneko Euskal Herrian Euskaraz taldeko zenbait ordezkariak prentsaurrekoa eman zuten martitzenean. Deialdia egin zuten euskararen ofizialtasuna eskatzeko zapatuan egingo den manifestazioarekin. Horrekin batera, besteak beste, euskarak bizi duen zapalkuntza salatu zuten. Manifestazioa Gasteizko Bilbo plazatik irtengo da 17:30ean. Gure bailaratik auto karabana joango da haraino. 15:00etan irtengo da auto kara-

bana Bergararik.

AED

Bestalde, sanjuanetan euskal giroa bultzatzeko eskaera berezia egin du AED elkarteak. "Azken erabilera neurketek ez dute pozik egoteko emaitzarik eman gure herrian, ezagutza gora joan arren erabilerrak beheranzko bidea hartu du eta. Horregeatik eskatu gura dute euskal musika nagusi izatea eta txikiteoetan euskal musika besterik ez jartzea.



Euskarazko komunikabideen alde

Udalbatzarrak Goiena kooperatibako bazkide izatea onetsi du oraingo asteko osoko bilkuran eta eguaztenean bete zuten hori, lankidetzaren hitzarmena sinatuta. Horren ondorioz, udalak dirulaguntzak bide-

ratuko dizkie eskualdeko euskarazko hedabideei. Hitzarmena Xabier Zubizarreta alkateak, Estepan Plazaola Goienako lehendakariak eta Joxe Mari Muxika ARKOko lehendakariordeak sinatu zuten.



AREITIO KIROLAK

Ondo pasau San Joanak

Zarugalde, 35
ARRASATE
Tel.: 943 79 38 38



- Automatismoak
 - Garajeko atek
 - Burdinazko pertsianak
 - Urrutiko aginte tresna
- HOMOLOGATUAK**
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak
 - Konponketak



Tf.: 943 79 10 20 • Faxe: 943 79 08 17
 Kataide industrialdea 18. 110 Postakutxa • ARRASATE



J A N T Z I D E N D A



www.LASAGABASTER.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



E T X E A P A I N K E T A

¿Ez gara hemendik lehenago pasatu?



• Noizean behin gertatzen da. Gidaria buru-belarri doa autoa gidatzen, une oro gozatuz, egoera bakoitzari gustua hartuz, kaminoa gutxienekoa bihurtzen dela. Baina hori Bora autoa gidatzen dutenei bakarrik suertatzen zaie. Gainerakoendako, kaminoa garrantzitsua da eta zuzen-zuzenean doaz Volkswagen kontzesionariora.

Bora



Udalaitz, S.L.

Gipuzkoa Etorbidea, 36 • ARRASATE
Tel.: 943 71 18 70

Lore

Olarte, 10 • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 50

**Zure edertasun aholkularia.
Zatoz eta biziago sentituko zara.**



Etxebizitza, aparkaleku eta lurzoru industrial gehiago aurrez ikusten ditu Egitamu Orokorrak

Oraingo asteko udalbatzarrak herriaren Egitamu Orokorra eztabaidagai izan du eta, makinabat eztabaida eta gero, hasiera bateko onarpena eman diote, EHren, EBren eta EAren aldeko botoekin. PSE-EEK, PPK eta EAJk ezezko botoa eman zuten, ez zeudelako ados egitامuan hartutako zenbait erabakirekin. Adibidez, euren eskaria izan da egitامuan aurrez ikusten diren babes ofizialeko 533 etxebizitza egin beharrean, gutxienez, 700 egin beharko lituzketela.

Kontuak kontu, Mondragoeren hazkundea edo aldaketak modu antolatu eta ordenatuan egiteko irizpideak zehaztu ditu udalak. Horixe da, oro har, Egitamu Orokorraren helburua.

BEHARRAK

Horretarako, lehenik eta behin herriaren egoera zein den aztertu eta, horren arabera, herriak dituen beharrak zehaztu dituzte, gero horiei aurre egiteko.

Eta, ikusi dituzten behar nagusiak, besteak beste, honakoak dira: etxebizitza premia

(babes ofizialekoak zein pribatuak), jarduera ekonomikoetarako lurzoru beharra, Garaia egitasmoa betetzea, mendebaleko saihesbidea egitea eta, oro har, hirigunea eraberritzea. Horrekin batera, motorrik gabekoentzako bide-sarea eta oinezkoentzako egonleku guneak egiteko beharra dagoela ere uste du udalak, baita industria txikiak (obretako hondakinak gordetzeko biltegiak...) zein etxebizitza txikiak (elkarri lotutako etxeak...) eraikitzekeo premia ere. Lur azpiko aparkalekuak egitea ere jasotzen da egitامuan, baita motordunentzako bideetan hobekuntzak egitea ere.

ALEGAZIOAK

Orain, Egitamu Orokorra jendaurrean jarriko dute alegazioak egin ahal izateko; azaroaren 9a arte dago horretarako. Horrez gain, irailaren 13tik urriaren 13a artean Egitamu Orokorrarekin erakusketa egingo dute Monterronen herritar guztiendako eta, horrekin batera, herritarrok egitامuaren gaineko esku-orri bat ere jasoko dugu etxean.

	orain		behar dena		aldea	
Etxebizitzak	8.539		10.662		2.123	
Babes ofizialekoak					533	
Jarduera ekonomikoak (Ha)	152'96		252'57		99'61	
	Uni.	Beste	Uni.	Beste	Uni.	Beste
Hezkuntza lurzorua (Ha)	2'23	7'34	4'96	8'38	2'73	1'04
Kirol lurzorua (Ha)	9'67		9'21		-0'46	
Berdegunek (Ha)	11'16		14'14		2'98	
Hiri-lurra (Ha)	212'15		258'54		46'39	
Hiritargaria (Ha)	105'86		200'23		94'37	



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

MONDRAGOE, UME DANTZARIEN BILGUNE

Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako 250 umek esku hartu zuten domekan Haur Dantzarien Egunean. Goizez eta arratsaldez, nork bere herriko dantzak erakutsi zituen. Eguerdian, herriko etxeetan edo elkartetan bazkaldu zuten umeez.



GAZTEAK, BAINA ASKI PRESTATUAK

36 gizonen eta 18 emakumek esku hartu zuten joan den domekan Román López mus irakasleak antolatutako txapelketan. Gizonezkoek zorte hobea izan zuten, eta lehenengo zortzi postuak euren dako izan ziren. Irabazleak taldeko gazteenak izan ziren, Iker Aranburu eta Jon Muruamendiaraz, 21 urtekoak. Zorionak!



DANBORRADA JENDETSUA

Estutasunak ahaztuta, koloretsu, jendetsu eta arrakastatsu abiatu zen Umeen Danborrada Arrasateko kaleetan zehar. Guztira, ia 200 umek esku hartu zuten jaialdan. Ondo baino hobeto eta gogo biziz jardun zuten guztiak, eta gero, San Viatorren askaria izan zuten, han egin dituztelako aurtengo entseguak.

KURRUXKO

Okindegia
Urdaitegia
Gozotegia
Bakailaoa

Bañez doktorea, 12
Tel.: 943 79 22 57

aitor

gizonezkoen
ileapaindegia

Otalora, 14 • Arrasate
Tel.: 943 79 01 39 / 617 28 02 83

Jubilatu eta gazteentzat
prezio bereziak

Otalora, z/g • ARRASATE • 943 79 82 68
 Irala, 5 • BERGARA • 943 76 27 16
 Barrenkalea, 35 • BERGARA • 943 76 29 46

LAKET

Pepe Jeans

DOCKERS

BONAVENTURE

Levi's

ZONE
A NATURAL HISTORY

SWEATER HOUSE

Thailandian bainatu nahi?



Belcor-Baño bikini edo bainujantzi bat erosteagatik Krabin astebete pasatzeko zozketa baten parte hartuko duzu.

Ekainaren 30era arte!

SIKOL

Olarte, 31 • ARRASATE
 943 79 89 32

UGARTE

A R O Z T E G I A



- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak



San Juan, 1 • (Gasolindegiaren parean) • BERGARA • Tel./ Faxe: 943 76 54 91



RENAULT

Clio berria



Zatoz ikustera

Clio Sport 2.0 172 cv zuretzat izan daiteke

Zatoz Mecara: Aukera daukazu Renault Clio Sport 2.0 172 cv bat eskuratzeko edo New Yorkerako bi lagunendako bidaia irabazteko!

MECA


Erakusketa eta tailerra: San Andres auzoa. **ARRASATE**. Tel.: 943 71 24 72

Erakusketa eta tailerra: Amillaga, 5. **BERGARA**. Tel.: 943 76 40 68



PEÑA TXARRIHANKA, TELLAMENDIRA

Garagartzako Peña Txarrihankak Tellamendira irteera antolatu zuen joan den zapatuan. Iaz hasi ziren ekimen horrekin, eta ez da ohitura onak alde batera uzteko kontua! Ehun bat lagun elkartu ziren eta egun-pasa eta bazkaria egin zituzten, Tellamendin.



“BIHOTZEZ, TOTIREN PARTETIK”

Sekulako jende ilara egin zen ekainaren 14an Hire liburu dendan, Toti Martinez de Lezea idazlea liburuak sinatzera etorri zela eta. Nobeletan erakusten duen irudimena ondo erabili behar izan zuen gasteiztarrek hainbeste eskaintza desberdin asmatzeko!



GIRO ONA GIROAN, E?

Monte tabernako Italiako Giroaren porrako irabazleak harpatu genituen saria jasotzen zezudela. Iñaki Gorostidik, Jose Antonio Zubillagak, Jabier Linazasorok eta Karlos Uribarrenek osatutako taldeak irabazi zuen lehenengo saria: 550.000 pezeta; Iñaki eta Joxe Urionabarrenetxeak bigarrena: 343.000; eta Oso Hondo taldeak hirugarrena: 171.000 pezeta. Zorionak!



DONOSTIARA IRTEERA

Ekin Emakumeak elkarteko hainbat partaide eta lagunek Donostia aldera irteera egin zuten joan den ekainaren 9an. Chillida-Leku bisitatu zuten, besteak beste, eta Lasarten egin zuten lagun arteko bazkaria.

IMPRESION
J DIGITAL
DIGITAL

Offset inprimatze digitala.
Kolore lauak,
inprimatze zuzena disketetik paperera

Arrasate pasealekua, 2 • Tel.: 943 77 06 11 • Faxa: 943 77 09 86

Takoi


- Zapata konponketak
- Giltzen kopiak

Kalealdea, 2 behe (Larreako etxeak)
Tel.: 943 79 84 95

HIBAI ZABALA (KOADRILEN BATZORDEKO ORDEZKARIA)

«Jaietan helburu nagusiarena da»

Joan den urteko ekimenari eutsiz, aurten ere herriko Koadrilen batzordea eratu eta egitarau polita antolatu dute San Juan jaietarako. Hiba Zabala egitaraua prestatzen diharduen Koadrilen batzordeko partaideetako bat dugu.



- Noiz hasi zineten batzarrak egiten?

- Berez, maiatz erdialdean hasi ginen. Hasiera baten, koadrila batzuk batu ziren, eta gero deialdi zabalagoa egin zuten kartelak eta abar jarrita, eta jende gehiago batu ginen. Pare bat koadrilaren ekimena izan zen eta zabalduz doa. Gaztetxean zortzi koadrila baino gehiago batzen gara.

- Zenbatean behin batzen zarete?

- Gaztetxean batu izan gara, martitzenero, 19:00etan. Hala ere, asteren baten bizpahiru aldiz izan gara zenbait ekimen hobeto prestatu ahal izateko.

- Dirudenez, batzordean gazte berri asko zaudete?

- Hala dirudi, ez dakit ziur, nik aurten lehenengo aldiz esku hartu dut eta. Badakit iaz batzordean izan ziren batzuk aurten ere badaudela, baina ez ei dira asko.

Izan ere, aurreko urtearekin alderatuz, Koadrilen batzordeak lan egiteko modua aldatu ei du...

Bai, antolakuntzan berrietasunak dauzkagu; hain zuzen

ere, aurten Koadrilen batzordeko partaide bakoitzak ekin-tza batekiko erantzukizuna hartu du eta, horren arabera, egun eta ordu konkretuetan bera eta bere lagun talde bat batu beharko dira. Batzordeko kide bat gauza guztien gainean egon beharrean, horrela hobeto planifika gaitezke eta jaiak ere goza ditzakegu.

- Udalarekin, berriz, noiz jarri zineten harremanetan?

- Batzarrak egiten hasi eta gutxira, udalarekin harremanetan jartzea erabaki genuen, batez ere, dirulaguntzak eskatzeko, guk antolatutako ekin-tzak jai egitarauan sartu ahal izateko eta gauza konkretuak eskatzeko. Hasieran asmo ugari geneukanez, hainbat ekin-tza datozen urtetarako uzteko

«MUK azterketak aldatzea ez legoke batere gaizki, gazte asko baldintzatzen bait du»

aholkatu ziguten, larregi izango zirelakoan. Aurten jardue-ra batzuekin aurrera egin, eta gero gerokoak. Ondo moldatu gara.

- Egitaraua antolatzerakoan, zeri eman diozue garrantzia?

- Jaietan helburu nagusiarena da herria egunez bizirik izatea. Jeneralean, gazteok ez

a, herria egunez bizirik izatea »

gara ez goizez ezta arratsaldez ere kalera irteten eta San Juanei beste itxura bat ematea aproposa deritzogu. Esaterako, Santamasekin alderatuz, oso tristeak dira.

- Elastikoak eta lelo berria ere atera ei dituzue...

- Bai, hala da. Gehienbat euskara bultzatzeko leloa sortu dugu: "Neuk be badakit, egingo dogu?", hitz joko eta guzti. Horrekin batera, marrazki bat atera dugu: dragoia makalarekin; eta irudi hori, leloarekin batera, elastikoan agertuko da. Berez, elastikoak koadrilendako at-

ra behar dira, hainbat koloretan, baina gerora baliteke salgai jartzea.

- Koadrilen batzordeko batzarrak eta hainbat ekin-tza gaztetxean egin behar dira...

- Hori proposatu zen gaztetxea indartzeko eta gune horri bizitasun handiagoa emateko. Azken baten, gazteok erabiltzen dugu gune hori, eta horretarako dago, erabiltzeko hain justu ere. Probetxua atera behar zaio. Era berean, baliteke epe laburrera gazte asanbleak egitarau zabalagoa pres-tatu ahal izatea.

- Zure ustez, zer falta zaie San Juanei?

- Sasoi berezia da; uda bertan da, jendeak oporrak ditu eta kanpora joateko aprobetxatzen du. Hori dela eta, jende gutxi geratzen da herrian eta giroa ere makaldu egiten da. San Juanak ezin daitezke konparatu herriko beste edozein jairekin.

- Zer egingo zenuke jendeak herrian geratu eta jaie-tan esku har lezan?

- Bueno, ahal beste jarduera antolatu eta gazteria mugiarazi. Horrez gain, bai unibertsitatean bai hemen,

Eskolan, askok azterketak izaten dituzte eta, esaterako, MUNIk, hemengoa izanik, azterketen datak aldatzea ez legoke batere gaizki, gazteei jaiak gozatzea baldintzatzen baitizkie. Askok egun bakarrean soilik egin dezakete parranda.

- Aspaldiko esaera da gazteek ez dutela ezer egi-ten, gaez irtetea besterik ez. Zer deritzozu?

- Esan, asko esaten da, baina jende nagusia ere antzera dabil. Denetik dago, bai gazteen artean bai nagusien artean.

AG AMAGARA

Erdiko kale, 54 • ARRASATE
943 79 09 09

Deitu eta informa zaitez
konpromiso barik

**Tratamendu
endokosmetikoak**

**Zelulitisa
Bizkortzea
Birmoldatzea**

Terapia mediku-estetikoak: Arruabarrena dk. (elkargokide-zk.: 6073)
Kiromasajea: Martín Peña (elkargokide-zk.: 960525)

Baque taldea nagusi San Juan sarian



Pasa den zapatuan elitekoen eta 23 urte azpikoen San Juan saria jokatu zen. Aurtengoa LXI.a izan da. Aparteko parte hartzea eta lasterketa txukuna txirrindulariek egin zutena. Guztira 135 kilometro eragin behar izan zituzten eta irabazlea Baque taldeko Iker Camaño sestaoarra izan zen, hiru ordu, bederatzi minutu eta hamasei segundoan egin zuela ibilbidea; bigarren Alberto Sanchez Ulma taldeko mexikarra izan zen; hirugarren Saunier Duval taldeko Jon del Rio sailkatu zen; lau-

garren Francisco Gutiérrez izan zen; eta Asier Atxa gazte aretxabaletarra, berriz, bosgarren.

Lehen herritarraren saria Iban Velascok erdietsi zuen. Helmugara heldu baino 25 kilometro lehenago erorketa izan zen eta arrasatearra ere tartean izan zen. Hankan min hartu zuen, baina aurrera jarraitzeko kemena izan zuen eta tropelarekin batera bukatu zuen lasterketa.

Mendiko sailkapenean Olarra taldeko David Herreiro ziklista izan zen aurrena.

Oiartzuarra nagusi ehiza txapelketan

Zapatuan, San Juan saria ehiza txapelketa jokatu zen. Leintze ehiza eta arrantza elkarteak antolatuta. Guztira 62 lagunek esku hartu zuten eta lehenengo hiru sailkatuen artean bi bergarar izan ziren. Elkartekoen artean, bestalde, aipagarria izan zen Jokin Aiastui 22 urteko arrasatearrak egindako lana.

Sailkapena:

- 1.- Fernando Iragorri (Oiartzun).
- 2.- Xabier López (Bergara).
- 3.- Iñaki Garmendia (Bergara).



Leintze elkartekoen artean:

- 1.- Gregorio Tejero
- 2.- Jose Ramón Otamendi.
- 3.- Jokin Aiastui.

Haitz eskalada ikastaroa

Maila: hastapena.

Noiz: uztailaren 7 eta 8an.

Teknika hauek landuko dituzte:

- Aseguratzeko teknika.
 - Poleako teknika.
 - Txapatzea.
 - Erreunioak eta rappelak ondo egiten ikastea.
 - Bi luze baino gehiagoko biak.
- Izena ematea: Besaiden, ekainaren 27 eta 28an, 19:30etik 20:30era.

Prezioak:

- 21 urtetik behera eta langa-

beak: Bazkideak 7.500 pta.

Bazkide ez direnak: 10.500 pta.

- 21 urtetik gora:

Bazkideak 8.500 pta.

Bazkide ez direnak: 12.500 pta.

Federatuta egotea beharrezkoa da!

Bi ikasleko irakasle bat izango da.

Lehentasuna 21 urtetik beherakoek izango dute.

Antolatzaileak: Gipuzkoako Goi Mendi Eskola eta Besaide ME.



Maalako Errebala, 27-behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 59 99

Udalatx
Inmobiliari A

- Etxeak, lokalak, ... saldu-erosi
- Tasazioak
- Aholkularitza Fiskala
- Errentamenduak
- Kontratuak

San Juan zoriontsuak izan!

Uriarte
SPORT

*Ondo pasan
San Joan
jaizak!*

Olarte, 6 • Tel.: 943 79 27 78 • ARRASATE

LANDALUZE
HARATEGIA-URDAITEGIA

ITURRIOTZ KALEA, 7 TEL. 943 79 14 86
ARRASATE

IKASTARO TRINKOAK ETA ERREKUPERAZIO-IKASTAROAK

uda honetarako

Jai zoriontzuak!!

MULTIMEDIA-SISTEMA


- 09:00etatik 21:00etara, etengabeko ordutegia
- Mintzapraktika
- Ikasteko ordu mugarik gabe
- 17 urtetik gorakoentzat

2 ORDUKO IKASTARO TRINKOAK TALDEKA

- Goiz eta arratsaldeko ordutegia
- Haurrak, gazteak eta helduak



Donostia-San Sebastián
Zubieta, 26.
Tel.: 943 43 31 02



Arrasate
Araba Hiribidea, 4.
Tel.: 943 71 20 55



Oñati
Olakua, 14.
Tel.: 943 71 60 00

E-mail: secretaria@cim-idiomas.com • <http://www.cim-idiomas.com>

Prestatu zaitez jaietarako!



DIM

Orain,
1.000 pta.-ko
deskontua Dim-eko
"Absolu" barruko
jantziren bat
erostean.

Casa Ceciaga

...eta ondo pasa San Juan jaiak

Maalako Errabala, 3
20500 ARRASATE
Tel•Faxa: 943 791262



NACEX

Expres Zerbitzua

*Kalitatea da gure helburua,
konpromiso osoz.*



Nacex Zerbitzuak



943 79 92 77

Fax.: 943 79 99 21

<http://www.nacex.com>

email:nacex@nacex.com



900 100 000

Informazio orokorra

NACEXNet

Nacexnet bidalketen jarraipen sistemarekin, uneoro, zure bidalketaren berri izango duzu gure web orrialdera kontsulta soil bat eginez:

<http://www.nacex.com>



**LANCASTER
SUN CARE 2001**

Bi erosteagatik,
hirugarrena **opari!**

TERRACOTTA



**GUERLAIN
PARIS**

- Bidaiatzeko eta jazteko poltsak
- Bisuteria
- Opariak
- Solariuma

KOSMETIKA

Lancaster

Guerlain

Elizabeth Arden

Kanpatorpea, 4 • ARRASATE • Tel.: 943 79 12 19



V. Xake txapelketa



Gaur, egubakoitza, Arrasateko V. Xake txapelketa jokatzen zen Iokin Zaitegi plazan, 16:30etik 19:00etara.

Esku hartzaileak:

-Bilboko Zuri-Baltza, Euskal Ligan hirugarren izan den taldea.

-Nafarroako Hoberena, Nafarroako irabazlea.

-Baiona, Iparraldeko irabazlea.

-Arrasateko San Andres taldea

Horrenbestez, Arrasatearrak aukera paregabea izango dute aurtengo lana biribiltzeko.

EAEKO TXAPELKETAN LAUGARREN

Bergaran jokatu zen Euskadiko txapelketa laugarren sailkatu zen San Andres xake taldea.

Luis Angel Ortegak eginitako lana azpimarratzekoa

da. Ortegak Josu Tornay, Txema Hernando eta Isidro Ruiz izan ditu taldekide. Aurtengo Euskadiko txapelketa Donostiako Gross taldea izan zen; bigarren Errenteriako Beraun Bera taldea eta hirugarren Fomento kultural taldea, Errenteriakoa hori ere. Txapelketa Euskal Ligako taldeak eta Lurraldekako txapelketetan sailkatu direnak esku hartu zuten.

Bestalde, elkarren kontra jokatu zuten Espainiako iparraldeko selekzioek eta Espainiako txapelketako bost lehengoenek, Asturias, Kantabria, Errioxa, Burgos eta Madrilgo taldeek hain justu ere.

Kantabria izan zen irabazlea, bigarren Donostiako Gross, hirugarren Madril eta laugarren San Andres.

Jon Aperribai hirugarren, distantzia ertaineko Euskadiko txapelketa

Zarauzko XVII. Triatloia jokatu zen pasa den astean, proba berean Distantzia ertaineko Euskadiko Txapelketa jokatu zen eta Jon Aperribai arrasatearra hirugarren izan zen. Bestalde, beteranotan, Alejandro Altuna ere hirugarren izan zen.

Guztira 271 lagunek esku hartu zuen, tartean Arrasateko Triatloi Taldeko lau lagunek:

Jon Aperribai (13), Zuhaitz Ezpeleta (21), Alejandro Altuna (91) eta Oier Etxebarria (162).

Proba luzea eta gogorra

izan zen, batez ere itsasoa zakar zegoelako. Bi kilometro eta erdi igerian, 80 kilometro bizikletan eta bukatzeko 20 kilometro lasterka egin zituzten.

Domekan Donostiako Triatloia jokatuko da, 10:30ean. Zarauzkoa baino motzagoa da eta han ere esku hartuko dute Arrasateko triatloi taldekoek. Jon Aperribai iaz zortzigarren izan zen eta aurten ere indartsu ekingo dio, astean ondo errekuperatu ostean.

Arrasatearrak atletismoko Gipuzkoako txapelketa

Gipuzkoako txapelketa esku hartuko dute Arrasateko Atletismo Taldekoek asteburuan:

- Unai Sarabia eta Angel Rivera 100 eta 200 metroetan.

- Martin Davila 400 metroetan.

- Oscar Gavilan disko jaurtiketa.


- Jonathan Perez pertika-jauzian.

Jonathan Perezek Oho-rezko Ligako txapelketa esku hartu zuen joan den asteburuan Anoetan, Real Sociedad taldearekin.

Realak mailari eustea zuen jokoan. Iruñeko Eskania eta Oviedoko Unibertsitatea izan zituen aurkari eta Realak Iruñeko taldeari irabazi zionez mailari eutsi dio. Jonathan

Perez arrasatearrak, pertika-jauzian, lau metroko jauzia egin zuen zapatuan; ez da arrasatearraren saltorik onena izan, bere marka 4,40 metro da eta. Astean, proba absolutuetako txapelketa, Jonathanek erakutsi beharko du pasa den astean gertatutakoak garrantzi handiegirik ez duela.

Bestalde, beteranoen Espainiako txapelketa jokatuko da asteburuan Salamanca. María Jesús Gil arrasatearrak 1.500 eta 5.000 metroetako probetan esku hartuko du: 1.500 metroetan sei minutu da bere markarik onena eta 5.000 metroetan 22-23 minutu inguruan ibiltzen da 61 urteko arrasatearra.



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak
Tbilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Binloa
Señalizazioak
Lonak
Erliebendun hizkiak



- Astean zehar eguneko menua
- Aste bukaeretan plater konbinatuak

ANBOTOSTE TABERNA

Larrea Plaza, 2.ena • 20500 • Tel.: 943 79 68 30

Zaldibarko areto **futbola**



Argazkian, finala jokatu duten bi taldeak: Rayo Aldeano (txapelkunak) eta Txapime Dribling.

RAYO ALDEANO TXAPELDUN

Aurtengoan Aramaioko Rayo Aldeano taldeak irabazi du Zaldibarko txapelketa.

Finala pasa den zapatuan jokatu zen eta Rayo Aldeanok 4 eta 2 irabazi zion Txapime Dribling taldeari.

Zale asko gerturatu zen Zaldibarrena, txapelketako azken bi partiduak ikusteko.

Lehenengoa Iriztuk eta IKPk jokatu zuten; hirugarren eta laugarren postuak zeuden jokoan eta Iriztuk 7 eta 2 irabazi zion IKPri.

Horren ostean, final handia jokatu zuten Rayo Aldeanok eta Txapime Driblingek; Hasiera-hasieratik izan ziren aurretik aramaiorarrak, arrasatearrek ezin izan zioten partiduari buelta eman eta 4 eta 2 irabazi zuen Rayo Aldeanok.

Jai giroa nagusitu zen gero, batzuek

garaipena eta besteek finaleraino heldu zirela ospatu zuten, eta afaria ere egin zuten antolatzaileekin batera.

ANTOLATZAILEAK POZIK DENBORALDIAREKIN

Horrenbestez, aurtengo denboraldiaren balorazioa egiteko une aproposa da. Antolatzaileek balorazio positiboa egin dute. Aurten ere akatsak izan dira, baina jeneralean txapelketa ona izan da. Antolatzaileek barkamena eskatu dute izandako akatsengatik eta, era berean, eskerrak eman nahi dizkiete laguntzaile lanetan ibili diren guztiei.

Datorren urteko txapelketari begira, bestalde, antolatzaileek herritarrek bultzatu nahi dituzte antolaketa lanetan parte hartzera.

Txapelketa jokatzera ere bultzatu gura dute jendea, ea datorren denboral-

dian talde gehiagok esku hartzen duten. Eta neskak ere animatu gura dituzte.

FIDANTZA JASOTZEA

Fidantza irailan jasoko dute taldeek; txapelketa hasi aurretik antolatzaileek deialdia egingo dute eta orduan jasoko dute fidantza.

Saria jaso duten jokalariek:

- Igor Galdos "Txibi" (Atezaina, Goma 2)
- Arriet Garaitonandia (Dribling)
- Beñat Ibarguren (Rayo Aldeano)
- Iban Vitoria (AC Surkos)
- Gorka Otxoa (Aurrera Bolie)
- Enrike Tena (Lasagabaster)

Joko garbiari saria:

Pepelus.Insero.com

Finaleko golik onena:

Igor Abarrategi (Rayo Aldeano)

LASER DEPILAZIOA

- Behin betikoa, azkarra, ez du minik egiten
- Depilazio sistemak, zerbitzu medikuaren bermearekin
- Aholkularitza eta aurrekontuak

Itaca Zentro Mediku eta Estetikoa

Juan Carlos de Andres Guerra dk.
General Alava 7. GASTEIZ. Tel.: 945 13 92 56 RPS. 492/98

MUXIBAR

Tel.: 943 79 11 25

PIZZAK

RAMÓN OTAMENDI HARATEGIA

**Berezitasunak:
Hemengo okela, buzkantzak eta txorizoa**

Ferrerias, 20 • ARRASATE • Tel.: 943 79 62 28

**Comercial
ARPE**

**San Juanetan
aldatu
zure orrazkera**

Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

TITARE

Olarte, 6 • ARRASATE
943 77 10 16



Merezi duzulako.
Distiraz inguratuko
zaitugu.

Jai zoriontsuak izan!



Garibai etorbidea, z/g
Tel.: 943 79 59 00/943 79 52 23
Faxa: 943 79 41 11



"la Caixa"



www.citroen.es

ETOR ZAITEZ IKUSTERA:

CHAPIME TAILERRAK Citroëneko kontzesionario ofiziala

Araba Etorbidea, z/g. Tel.: 943 79 45 22 • ARRASATE



GRUPO **RKUZ** 1950-2001

51 urte



Araba Etorbidea 5
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Araba etorbidea 20
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Mitarte 3
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Asunción, 1
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

Gaztelu Konboren kontzertua

Iaz, San Juanetan, emankizuna egin zutenean ez zeuden oso ziur Gaztelu Konbo taldekoak aurrera jarraituko ote zuten. Orain, urtebete igaro dela, hemen ditugu berriro: ekainaren 24an emanaldia egingo du perkusio talde horrek Olarte kaleko Jai Zale tabernan, 20:00etan.

Dunbaka perkusio taldearen oinordeko da Gaztelu Konbo. Iñaki Bruña musikari arrasatearra da sortzaileetarikoa bat, eta Aretxabaletako, Oiartzungo eta Aramaioko lagunak daude taldean. Gazteluondon elkartzen ziren entseguetarako, eta hortik dator kio izena taldeari.

Afrikar, arabiar eta hego-amerikar doinuak eskaintzen



ditu Gaztelu Konbok eta, halaber, txirularen eta ahotsaren laguntzarekin giro etnikoa ematen diete euren saio guzietei. "Iaztik, erreperitorioa zer-

txobait aldatu dugu, baina antzekoa izango da; hori bai, lehen baino hobeto egiten saiatuko gara", diote taldekoek.

Asmo handiak datorren urterako



Joan den zapatuko margo lehiaketako oihartzunak ez dira oraindik itzali: gaur izango da sari banaketa eta gaur bertan bukatuko da aste hasieratik Monterronen izan den parte hartzaile guztien lanen erakusketa. Baina Jesus Uriartek, Tamayo paper dendako arduradun eta lehiaketako antolatzaileak, agertu ditu dagoeneko datorren urterako asmoak: lehiaketa Estatu oso-

ra zabaltzea eta lanak, egunean bertan egin beharrean, hainbat egunetan egin ahal izatea, horrela osatuagoak izateko; izan ere, Jesusen esanetan, "horrelako lehiaketatan denbora falta igartzen da".

26 LEHIAKIDE

Denbora ez zuten soberan izango, ez, eta fin-fin aritu ziren horregatik aurtengo 26 lehiakideak. Zapatuan izan

zen Tamayoren 3. Margo lehiaketa Arrasateko alde zaharrean. Orain bi urte arte udalak eta Kutxa fundazioak antolatzen zuten San Juanetako aire zabaleko margo txapelketa; iaz Tamayok antolatu zuen, baina aurten izan da lehenengo aldia irabazlea herrian bertan aukeratu dena. Udalak, Euskadiko Kutxak eta Ibai Artek sari bana emaniko dute.

Koldo Gojenola Toki Ederren

Joan den astetik hasita, erakusketa berria dago ikusgai Toki Eder kafetegian: Koldo Gojenola margolariaren lanak, olioak guztiak. Bigarren aldia da Gojenolak San Andresko kafetegi horretan erakusten duela; aurrekoa orain bi urte izan zen.

Iaz bost margo lehiaketa irabazi zituen Koldo Gojenolak, eta beste zazpitan bigarren geratu zen. Horrez gain, beste zenbait ohorezko aipamen eta aukeraketa merezi izan ditu Euskal Herriko eta Espainiako lehiaketatan.

Bilbora irteera

Bilbo eta bere emakumeak izenburupean, bidaia kulturala antolatu dute udaleko Emakume Sailak eta Emakume Kontseiluak. Ekainaren 30ean izango da, baina izen emate epea ekainaren 28an bukatuko da. Langileek 1.000 pezeta ordaindu beharko dute eta langabeek, erretiratuek eta laguntza ekonomikoa jasotzen dutenek, 600.

EMAKUMEAREN ERAGINA

Egun osorako irteera antolatu guran zebiltzan udala eta Emakume Kontseilua. Bilboko hiriaren 700. urteurrena zela-eta, *Ocho pasos por Bilbao* izeneko gida argitaratu zen, eta hori hartu da oinarritzat txangoa antolatzeko. Bilboko kaleetan paseoa ibili eta emakumeek arkitekturari, erakuntzari eta kulturari izan duten eragina ikusi ahal izango da. Liburuaren egile Marta Brancas izango da gidaria. Eta irteera biribiltzeko, Guggenheim museoa ere bisitatu dute. Bazkaria nork bere kontura egin beharko du.

JON BALENTZIAGA (MARGOLARI ETA ESKULTOREA)

«Txikitan, baserrian aitonari begira piztu zitzaidan artearekiko grina»

Jon Balentziaga margolari eta eskultorea bergararra da, baina lotura estua du Arrasaterekin, hemengo Aita Menni ospitaleko arte irakasle izan delako. Uztailaren 2a bitartean, bere artelanen erakusketa dago zabalik ospitale horretan. Sari asko irabazi ditu Jonek: besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko lehen saria edo Espainiako elbarrituendako margo lehiaketako bigarrena.


— Zelan piztu zitzazun artearekiko grina?

— Txikitan, aitonarekin denbora asko ematen nuen, baserrian. Eskuilarekin, egurrarekin... lanean begiratzeko, eta ni gauza bera egiten saiatzen nintzen. Geroago, lagun taldean Jesus Mari Laz-

kano margolaria zegoen, eta harengandik ere ikasi nuen. Bilbon Arte Ederrak ikasi nituen.

— Irakasle ere izan zara...

— Bai. Ikasketetatik, margolaritzaren pedagogia gustatu zitzaidan. Umeekin jardun nuen eta gustura ibili nintzen; ni gormutua izanik, arreta handiagoa ematen zidaten, eurendako esperientzia desberdina zelako. Gerora, hirugarren adineko emakumeekin egin dut lan. Pazientzia handia behar da, baina oso pozik ibili nintzen. Ikasle gazteetarikoz batzuek burua beste leku batean zuten, eta zaila zen. Beste batzuek senitateko artistak zituzten, eta horiek oso trebeak ziren.



— Zelan egiten duzu lan?


— Enpresa baten nabil, eta astia dudanean, nire estudiara joaten naiz. Neguan, hotzarekin gusturago nagoenez, margotu egiten dut; udan eskulturak egiten ditut. Inspi-

razioa eguneroko kontuetatik datorkit. Lan bakoitzari zentzu bat eta kolore jakin batzuk ematen saiatzen naiz. Forma geometriko desberdinetako markoak erabiltzen ditut, estilo modernoan lantzen dut.

« Neguan, hotzarekin gusturago nagoenez, margotu egiten dut; udan, eskulturak egiten ditut »

ZABALA oinetakoak

53 urtean elkarrekin ibili gara
Ospa ditzagun San Joanak
Erdiko kale, 18 • Tel.: 943 79 14 27



Izozkitegia

Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia

Iturriotz, 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE



ORDUTEGIA:
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:00

Ferrerias, 35 ARRASATE Tel.: 943 77 13 78

GORKA

ILEAPAINDEGIA SOLARIUMA
10 saio = 6.000 pezeta

Egitaraua

Egubakoitza, 22

Ludoteketan eta gazte txokoetan,
kamiseta tindaketa
23:00 Ksusta taldearekin, Gaueko sugarrak
kale antzerkia

Zapatua, 23 - San Juan bezpera

12:00 Ume animazioa Goloka taldearekin,
Seber Altuben
15:00 Txistulariekin diana
16:00 Txapliguak eta bonba japoniarrak,
plazan
16:30 Iokin Zaitegin, xake partidak
17:00 Takolo, Pirritx eta Porrotxen
emanaldia, Uarkapen
17:00 Makala eramango dute plazaraino
18:00 Makalaren jasotzea, plazan
19:30 Triki Poteoa
19:30 Salbe solemnea, parrokiari
21:30 Errementari dantza, Nafarroa
etorbidetik
22:30 San Juan Sua, plazan
22:30 Nagusien danborrada,
Nafarroa etorbidetik
23:00 Rock kontzertua, txosnagunean
01:00 Gaubela taldearekin dantzaldia,
plazan

Domeka, 24 - San Juan eguna

08:15 Txokolate-jana, plazan
08:30 Gaiteroekin diana
09:00 Entzierroa, Ferrerriastik Laubideraino
11:00 Meza nagusia, parrokiari
11:00 Erraldoi eta kilikien konpartsa
11:30 Arrasate Musikaleko bandaren kalejira
12:00 Agurra eta San Juan zortzikoa, plazan
12:30 Nagusiei omenaldia, Abaroan
13:00 Bandaren kontzertua, Monterron
parkean
17:00 Pilota partidak, Uarkapen
18:00 Arku tiroketa lehiaketa, Zaldibarren
18:00 Mus, partxis... partidak, gaztetxean
19:00 Gaiteroekin kalejira
19:30 Bertso txikiteoa, txosnagunetik
hasita
20:30 Son Caliente conga kubatarraren
kalejira

21:00 Dragoi-jana, plazan
23:15 Dantzaldia Egan taldearekin, plazan
24:00 Su artifizialak, Santa Barbaratik
00:30 Son Caliente, Monterron parkean
05:00 Kulerero eta galtzontzilo herri
lasterketa

Astelehena, 25 - Koadrilen eguna eta ume eta gaztetxoaren festa eguna

08:15 Txokolate-jana, plazan
08:30 Gaiteroekin diana
09:00 Entzierroa
10:00 Umeendako diana
12:00 Eguzki Laruri ongietorria, Zaldibarren
14:30 Bazkaria, gaztetxean. Gero,
Herri Olinpiadak eta txikiteoa
14:30 Ume eta gaztetxoendako bazkaria,
Zaldibarren
16:00 Eguzki Laruren jolas parkea,
Zaldibarren
18:00 Txatxilion.com ikuskizuna,
Zaldibarren
19:00 Jaialdia, zezen-plazan
19:15 Eguzki Laruri agurra, Zaldibarren
20:00 Paketito kale antzerkia
22:30 Etzakit taldearekin dantzaldia, plazan
23:30 Mikel Urdangarin, Monterron
parkean


Astelehena, 26

08:30 Gaiteroekin diana
09:00 Entzierroa
11:00 Incansables txarangarekin kalejira
11:00 Erraldoi eta kilikien konpartsa
12:30 Trikitilarietara kalejira
14:30 Herri bazkaria, Uarkapen
17:00 Ume antzerkia, plazan
18:30 Pilota partidak, Uarkapen
19:00 Incansables txarangarekin kalejira
19:30 Soka dantza, plazan
20:00 Rock kontzertua, txosnagunean
20:15 Txinparta taldearekin dantzaldia,
plazan

Egubakoitza, 29

19:30 Euskal musika eta dantza jaialdia,
Monterron parkean

geurian onena ego



**BIONA
TABERNA**




**BASATI
TABERNA**
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711768

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

**SAN JOANAK
ONDO PASATZEKO...**



ederra
arrasate

Iturriotz, 12 • ARRASATE

Jai Zale Taberna ★

Olarte 37, Behea Tel.: 943 796 792 Arrasate

ARRASATE *Cine Desberdin Bat!*

**Aupa San Joanak!
Aupa Arrasate!**




**OKORETEGI
KAFETEGIA**

Juan Carlos Guerra, 5 behea • ARRASATE • Tel.: 943 77 03 62

ETXERAT TABERNA

ZURGIN KANTOI, 5 • Tel.: 943 79 20 52 • ARRASATE

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA!



nfan
sanfan
sanfan
sanfan
sanfan
sanfan

gironik un danian



ALDAPE

Taberna

Espezialitatea: menua-karta

Iturriotz, 41

Tel.: 943 79 70 41

ARRASATE

Monte taberna

Maalako arrabala, 11

Tel.: 943 79 20 56

CAFÉ

IA M AI

KONTZEZIMO
KALEA

943 71 29 95 - 20500 ARRASATE

ESKIÑA taberna

Ondo ibili San Joanetan!

Olarte, 25 • ARRASATE • Tel.: 943 79 20 20

KYMETZ

Kazuelatxoak,
ogitartekoak eta
pintxoak

Maala, 15

Tel.: 943 79 60 14

ARRASATE

ARROGOI TABERNA

San Joanak iritsi dira, zatorz zuzana!

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 943 79 06 40

RUMBA TABERNA

JAI ZORIONTSUAK IZAN!!

Iturriotz kalea

ARRASATE • Tel.: 943 79 20 00



**Aupa arrasatearrak!
Aupa San Joanak!**

DISCO-BAR



**Disco-Bar Gurelekuk
SAN JOAN ZORIONTSUAK
opa dizkizu.**

Zarugalde, 17 behe • ARRASATE

Tel.: 943 79 20 29

sanfan sanfan sanfan sanfan sanfan sanfan



ETXEAN



NAHI DITUGU!




JOSEBA GARITAONANDIA




JON AGIRRE



JOSU URIBETXEARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO



KEPA URRIA




JOSU ARKAUZ



UNAI PAROT




AMAIA ARRIETA



TXUS GOIKOETXEA




JOSE I. GAZTAÑAGA




JESUS MARI ZABARTE



ENRIKE LETONA



JOSE GABRIEL URIZAR



NATALE LANDA



ARTZ GOMEZ



ERREFUXIATUAK

EUSKAL PRESOAK



EUSKAL HERRIRA!!

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:

Irati Etxerat Iluntz Ekaitz Iturriotz Biona Basati Iazale Kimetz

Zelako jaiak, halako egitaraua



San Juan jaiek bilakaera izan duten moduan, jaien iragarle den egitarauak ere bilakaera eta aldaketa dezente izan ditu urteetan. Guk aldaketarik nabarmenenak zeintzuk diren erakutsi gura eta hona hemen herritar batek makina bat urtean egindako lanaren emaitza: egitarau bildumatxoa.

Mende hasieratik gaur egunerainoko egitarauak agertzen dira goiko argazkian.

1914. urtekoa da aurreneko egitaraua eta hortik aurrera, 40ko hamarkadakoak, 50ekoak, 60koak, 70ekoak, 80koak eta 90ekoak ere ikus daitezke. Eta, jakina, mende berrikoak ere badaude.

ARGAZKIAK

Ikusten denez, hasierakoetan letra eta marrazki gehiago izaten ziren jeneralean; argazkiak geroago agertuko ziren, 40ko hamarkadaren amaiera aldean.

Tamainari dagokionez, berriz, txikiagoak ziren hasierako egitarauak. Edozelan ere, denetarik izan da: txiki-txikiak, ertainak eta handiak.

Eta, barrualdeari begiratuz gero, hor ere igarriko ditugu aldaketak. Nabarienak, jakina, publizitatearekin lotutakoak dira. Bistakoa denez, oraingoan aurrean, nahiko sinpleak izaten ziren orduko iragarkiak. Marrazki asko erabiltzen zituzten, koloretan batzuk; eta bestela, askotan koloreetako orriak erabiltzen zituzten iragarkia bera koloreztatu beharrean.

MURUAMENDIARAZ
GOZOTEGIA
Jai goxo-goxoak izateko
 Erdiko kale, 28 • Tel.: 943 79 15 34



UNZUETA
J A T E T X E A

- Eguneko menua
- Espezialitatea:
- Karta
- Txuleta parrillan

Zabola auzoa. ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 95

DELINEANTEA


Arrasateko Udalak, DELINEANTEA lanpostua, errelebu modalitatean, aldi baterako bete nahi du:

Eskaintzen da: 5 urte inguruko lan-kontratua.


Baldintzak: Euskara: 2. HEren pareko jakintza LH II delineaizio espezialitatean

Aurkezteko epea: 2001/06/23tik 2001/07/05era arte, biak barne.

Oinarriak: Udaletxean jaso daitezke.



ARRASATEKO UDALA
Personal Saila ■

Jaixetan lan egingo dutenak



Miguel Hernández
Kale garbitzaillie

Jaixetan lan haundixe egitten dogu, 06:00retatik eguerdira arte garbiketan jarduten dogu, egunero. Hogei urte daroiet, eta urtero, jaiegun guztixetan, lana.




Jose Manzano
Udaleko elektrikarixe

Txosnen argiztapena, hozkailuei korrontie eruen. Brigadakuek taulak montetan ibiltten die, baitte hesixek jarten be. 30 urte daroiet urtero San Juanetan eta jaiegunetan lanien.



Lierni Axpe
Udaltzaiña

Zirkulaziñue erreguletan, tanborradien...baitte desbideraketaketa bide mozketak be. Segurtasune zainketan ibiltten gare, lan haundixe izeten da. Anbulantiek be kontrolau, kobretako...



Iñaki Barrena
Txistularixe

Egun osua urteten dogu, jaixek beste modu batera bizi dittugu. Gaitero, txistulari eta dantzarixon lana ez da kontutan hartzen, gure lana igerketan da kale egitten dogunien.



Saioa Alberdi Oianguren
Arrasate hotelekue

Hotelien, iguel jende gutxiago ibiltten da enpresetakue izeten dalako, eta orduen jaixetan gazte gehixago etorten die.



Juan Karlos Davila
Monteko tabernarixe

Lan egittie ez dost inporta, giro ona badago, barra barruen, hobeto pasetan dozu. Lan haundixe eukitten dot, baiñe girue be bai.



Aitor Onandia
Onandiako goxogillie.

23 eta 24en gaupasazale asko etorten die gosaltzera eta igerri egitten da. Jatetxietan be pastelak eskaketan dauie.



Andoni Zubiaga
Amaia antzokikoa

Aurten, Amaia itxitte dagonez, kalien ibilli naz kontzertue organizetan-eta. Lanien gustora ibiltten naz.

LOS VAQUEROS

Zerkaosteta, 3 • 943 79 98 48
Zerkaosteta, 5 • 943 79 97 55

San Joanetan, bakerotan primeran pasetako!!

HIRE

**LIBURU ETA PAPERDENDA
BIDAIETARAKO ETA
LARRUZKO ARTIKULUAK**

Iturriotz, 4 • ARRASATE
Tel. / Faxe: 943 - 79 14 84

6 HILEBETERAKO
UKIPEN-LENTEAK

14.900 PTA.N
BAKARRIK
89,55€

Multilens Pack Berria

Eta gainera, bidai POLTSA BAT OPARI

Multipackean hauek sartzen dira:
Hilean behin aldatzeko Multilens lenteen 2 kaxa, Multisoluzio bakarreko edo Multibio Pluseko 2 pote eta lenteak gordetzeko 2 kutxatila.

MULTIOPTICAS

LARRAÑAGA

BERGARA • ARRASATE • ORDIZIA



3 hilabeteen ordaindu errekar gurik gabe
www.multiopticas.com



**BAUSCH
& LOMB**
**CIBA
Vision.**
A Novartis Company
www.cibavision.es

Promoziokak 01/08/31ra arte edo opariak bukatu arte iraungo du.

R.P.S. N° 16499



Cihana
Apainketak

Arrasate pasealekua, 8
Tel.: 943 77 4 56
ARRASATE



Errementari Dantza

San Juan jaietan izaten den ekitaldi jendetsuenetakoa, herriarren artean arrakasta handia daukana, 1995. urtetik gaurdaino ekainaren 23ko iluntzean herriko plazan egiten den Errementari dantza da. Lore Gazteak dantza taldearen ekimena da nagusiki eta talde horretako partaide Joxe Jaime Bengoa "Gomix"ek azaldutakoaren arabera, dantza hori sortzeko Santamasetako Txerri dantzan oinarritu ziren: "Gure asmoa zen herriko taldeek esku hartuko luketen ikuskizuna prestatzea, eta horretan hasi ginen". Joxe Ramon Vitoriak musika konposatzen lagundu eta dantzari, banda, gaitero, txistulari, txalapartari, trikitilari, albokari eta bertsolariak esku hartzeko moduko ikuskizuna prestatu zuten, Iparraldeko eta Nafarroako dantzetan oinarritutakoa. Hain zuzen ere,



polka, Ingurutxo eta kalejiren nahasketatxoa, besteak beste.

KONDAIRA ETA HISTORIA KUTSUA

Bestalde, dantza berezi hori iraganeko pasarte edo kondairekin lotu gura izan zuten, eta horretarako dragoia hiltzen duen errementari baten oinarritu zuten istorio osoa, hala,

Arrasateko sinboloaren, hots, dragoiaren, gaineko pasarteak erabiliz.

Edozelan ere, Errementari dantzak oso harrera ona jaso ohi du herriarren aldetik, herriaren iragan eta kondairekin daukan loturagatik baita oso ikuskizun handia eta berezia delako. Hain justu ere, herriar askok dantza berezi hori erdi

ikasita daukate, baina antolatzailerik ez dute parte hartzea gehiago zabaldu gura, ikuskizun kutsuari eutsi ahal izateko. Halaber, hilabete pare bat lehenago entsegutan hasten dira eta egunean bertan 50 bat bikote aritzen dira dantzan herriko plazan. Ganoraz dantza egiteko leku askorik ez da geratzen, Lore Gazteak taldekoen esanetan.

Horrez gain, Errementari dantzak baditu beste berezitasun batzuk ere. Esaterako, alkateak "alkatearen zortzi-koa" dantzatzen du dragoiaren aurrean eta dantza hori bukatzean, abarketak sutara botatzen ditu. Dantza eta ikuskizun erraldoia San Juan bezperan, iluntzean, herriko plazan ospatzen bada ere, hara heldu aurretik dantzariak kalejira bitxia egiten dute Zaldibartik plazaraino, Maala, Iturriotz eta Erdiko Kale zeharkatuta.



Entzumen-arazoek isolatu egiten gaituzte

Ondo entzutea ezinbestekoa da bizitzaz erabat gozatzeko



Zure Audifono Digital berriaren moldaketan 30.000 PTAtik aurrerako deskontua




DOHAINEKO txeko elektronikoa eta opari bitxi bat gugana inguratzen diren guzientzat.



ARRASATE
Otalora Lizentziatua, 18
943 71 27 93

Jai zoriontsuak!



Suaren esanahiak

Ekainaren 24ak, San Juan Egunak, ongiatorria egiten dio udari, eta egun luzeena izanik gau motzena ere badu. Dena den, non-nahi sua egiten da egun horretan eta eguzkiari, suari edo azken finean, argiari, kultoa egiten zaio.

Garra, disdira, iriztua, dibinitateen adierazgarri berezitzat hartu izan dira mendeetan zehar. Erljio eta kultura guztiek oinarri gisa izan dituzte argia, eguzkia eta sakrifizioaren sua. Azken finean, argia eta sua energia dira eta azken hau unibertsoaren ezinbesteko atala da. Era berean, sinbologia unibertsalak honi esanahia ematen jakin du betidanik.

Suak izaera erlijiosoa hartu izanak zera adierazten du;

berau "bizirik" dagoen sinbolo bat dela. Hala ere, iraganean atzera egin arren, ezin dugu zehazki ezagutu aintzina giza-entzako suak benetan zuen esanahia zehatza. Izan ere, argi dago, hauentzako elementu bizidun bat zela, kontsumitu, berotu eta argia ere ematen ziena, baina era berean, mina, suntsiketa eta heriotza bera ere ekar lezakeena.

Heriotzarekin lotuta, gizakiak elementuei gizaki izaera eta deitura ematen hasi zenetik, hilobi zein enterramenduetan zuziak erabiltzea ohikoa zen eta hango pareta eta sabaletan suaren, iriztuen edota eguzkiaren izpien irudiak marraztea ere oso hedatua egon izan da.

Udako Ikastaro Trinkoak

Uztailaren 3tik 28ra

- Mekanografia ordenagailuz
- Informatika
- Internet
- Microsoft project
- Autokad
- Programazio Informatika
- Ingeles multimedia
- Kontabilitate-gestioa
- Giza baliabideen administrazioa
- Zergen gestioa
- Ekipo informatikoen mantentze eta konponketa
- Musika informatika (MIDI Sistema)
- Enpresaritza eta ingeniari-tza (Baita abuztuan eta irailean ere)
- Laguntza klaseak

AKADEMIA

BASTIDA

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorbidea, 3 - 1ª • 20500 Arrasate-Mondragón
Tel.: 943 79 35 33 • Fax: 943 79 06 28
E-mail: bastida@bastida.es

Eguzki Laru, Txatxiartistak eta estralurtarrak

Iaz, Eguzki Laru anai txikiarekin etorri zen. Ustekabe ederra Zaldibarren zeuden ume guztiendako! Aurten zer gertatuko den jakin gura baduzue, astelehenean, ekainaren 25ean, duzue hitzordua Zaldibarren. Egun hori herriko txikiaren egun handiena izango da; bai, behintzat, aurten San Juan jaietan! Gainera, aurten zenbait ekintza berri izango dira.

Eguzki Laruren etorrera izango da eguneko gertakizunik garrantzitsuenetarikoa. Eguerdiguruan iritsiko da Arrasatera. Baina eguneko

protagonistetako bat -besteak umeak izango dira- heldu artean, izango da zer egin eta zerekin gozatu.

ONGIETORRIA

10:00etan, Txatxilipurdikoek diana joko dute herriko kaleetan zehar, ume eta gaztetxoak iratzartzeko, badelako ordua! Gainera, hala izanik, guztiek izango dute 11:00ak aldera Zaldibarren elkartzeko beta. Txatxilik borlak eta banderatoxoak banatuko ditu umeen artean, Eguzki Laruri behar den moduko ongietorria presta-



tzeko. Horrekin laguntzeko, aurreko urteotan ikusi ez genituen laguntxo batzuk izango dira han: Txatxiartistak. Artista gaztetxo horiek bikain egingo dute dantza Eguzki Laru etorri bitartean. Hura eguerdian iritsiko da, eta orduan irekiko dute Zaldibarko jolas parkea. Hango aukera iaz baino oparoagoa izango da, herri jolasak antolatuko ditu-eta Txatxilik: zaku lasterketak, sokatira... Arratsaldeko 6ak aldera, bost

estralurtar, zein baino zein jatorrago, etorriko dira *Txatxilion.com* ikuskizunarekin. Ez da ikusteko bakarrik izango, ikusleak parte hartzaile bihurtuko dira!

Hori bai, aldatu ez dena Eguzki Laruri egin beharreko agurra izango da. Ordu arte, behintzat, ondo pasa! Eta ez ahaztu Zaldibarren umeendako herri bazkaria izango dela. Horretarako, txartelak erosgai daude Txatxilipurdin.

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!!

Ferrerias, 32 • ARRASATE Tel.: 943 77 03 80

PAPERDENDA
J. URIARTE
Grupo Tamayo

Paperean eta Arte Ederretan **LEHENAK.**

Kutxak Margo-pala Pintzelak Astoak Mihiseak Manikiak Oholtxoak Finkatzaileak Pigmentuak	Olioak Akuarelak Akrilikoak Goauche Tenperak Tintak Pastelak Bernizak ...
---	---

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

- Ordenagailuak
- Inprimagailuak
- Konponketak
- Eguneratzeak
- Osagarriak
- Internet

Okendo, 1
Tel./Faxa: 943 77 16 68
E-Mail: microinformatica@jet.es



◆ Patricia

Anna Mera

olsen

MYTIME

MARIONA GEN


De La Cierva & Nicola

BRUNELLA

TOYPES



Erdiko Kale, 4 • ARRASATE • 943 79 46 94



 Catimini
 Pampolona
 oilily
 cakewalk
 ELLE
 CHEVIGNON
 KIDZ
 CIMARRON
 LIBERCO
 DKNY
 QUIKSILVER
 Lois
 NAFNAF





UMEEN ETA
GAZTEEN MODA
 Garibai, 6 • ARRASATE
 Tel.: 943 79 97 86



www.loramendikirolak.com

Loramendi kirolak

Udaran sartzeko

Zarzuetak, ereserkiak, klasikoak... zer ez?

Arrasate Musikaleko bandaren jaietako erreperitorioa urterik urtera aldatzen da, baina badago aldatzen ez den ezaguri bat: barietatea. Eduardo Arzamendi bandako zuzendaria piezak aukeratzeaz arduratzen da, eta saiatzeko da estilo guztietako doinuak batzen. Horren erakusgarri da aurtengo San Juanetako kontzerturako prestatu duen erreperitorioa: *Gasteiz* martxa eskalduna, *Herri Txikiko Jaiak* intermedia, *Black, el Payaso* dueto eta kuartettoa, *El Profeta* martxa, *La Canción del Olvido* zarzuela aukeraketa, *American Folk Rhapsody* pieza eta urtero aldatzen ez diren bi ereserkiak, *Gora Arrasate* eta San Juan Himnoa, biak Juan Arzamendi arrasatearrak. Horiek guztiak entzun ahal izango ditugu ekainaren 24ko emanaldian, Monterron parkean.

PASODOBLEAK

Horixe da zuzendariaren eta bandakoen irizpidea. Baina zein izango ote da herritarrena? Eduardo Arzamendik esan digenez, mondragoetarrek oso ondo hartu izan dute beti Arrasate Musikaleko banda, "batik bat, lehengo herriko bandare-



kin akordatzeko direnek", gehitzen du. "Eta eskerrak eman gura dizkiet herritar guzti barietate hain harrera ona egiteagatik". Baina badituzte euren preferentziak ere: pasodobleak eta zarzuetak. Bandako musikariek gustura jotzen dituzte estilo askotarikoko piezak. Baina eurenak, filmetako soinu-bandak dira jotzeko atseginenak, "nahiz eta zailagoak izaten diren", dio Arzamendik.

EGONKORTASUNAREN BILA

Fruitu onak lortzeko, lan gogorra egin behar izan dute musikari horiek guztiak. "Urriari hasita, egubakoitz eta zapatuetan entseatzeko dugu. Sakrifizioa da, bai, baina partaide guztiak ilusio handiz dihardute", dio zuzendariak. Sakri-

fizioa, ez bakarrik entseguek eurek eskatzen dutenarengatik, baizik eta bandak berak gorabeherak jasaten dituelako ere: "Jende asko sartu-irten ibiltzen da: ikasketak direla, azterketak direla, lana dela... utzi behar izaten dute denboraldi batez. Gero, berriak ere etortzen dira, Banda Txikian ibilitako umeak. Gure helburua da bandari egonkortasuna ematea, kide finkoak izatea eta horrela gauza gehiago egiteko aukera izatea", diosku Eduardo Arzamendik. Kontuan hartu behar da, gainera, denek ere beste lanbide batekin bateratu behar dutela banda.

Oraingoan, 10 eta 40 urte bitarteko 40 lagunek dihardute, eta eurek eskainiko digute ekainaren 24ko kontzertua. Zorte on, guztiak!



Lourdes Arkotxa
(Bandako nagusia)

41 urte ditu eta, elorriarra izan arren, Arrasate Musikaleko ikasle da, eta bandako partaide 1994tik.

— Zuk zeuk zelan gogoratzen duzu banda, entzule moduan, txikitan?

— Txikitan ez nuen askorik entzun, orduan banda gehienak desagertu egin zirelako. Heldutan ezagutu izan ditut bandak; baina gustatzen zaizkit, bai.

— Bandaren zein ekintza duzu gustukoena?

— Kalejira alaiagoa da, baina nekezagoa ere bai. Kontzertua formalagoa da. Erremeritari dantza ere oso polita da.

MENDIZABAL



okindegia

Seber Altube, 2 • Tel.: 943 79 89 60
ARRASATE

Zubizaretza



GALERIA 44

Denda berezia
Ondo pasatu San Joanak

Zerkaosteta, 8 Tel.: 943 - 79 90 50 • ARRASATE

Ohiturari erantzunez, badator danborrada!

San Juan bezperarekin batera danbor soinuak etorri ohi dira Mondragoera. Eta danbor soinuek, jakina, Nagusien Danborrada iragartzen dute. 250 bat lagunek esku hartuko dute aurtengoan, zazpi konpainia guztira: Beti Alai (zuzendaria Arantza Baltzategi), Txalaparta (zuz. Juan José Uriarte "Bermi"), Eskoziarrak (Bea Nuin), Danborreroak (Néstor Maidagan), eta Sukaldariak-Barrildunak (Eva Romero), bost talde horiek danborra joko dutela; eta Beti Gazte (Rafa Fernández) eta Montxon (Rosi Otadui) konpainiak datoz ondoren, barrilak jotzen. Aurten, iaz ez bezala, ez da banderadunen konpainiarik egongo. Hori bai, azken urteotan moduan, zaldi gainean Pepi Gorosabel joango da eta ostean banderadunak: Arrasatekoa Nagore Altzelaik eramango du, Ikurrina Lorea del Fresnok eta SUDCen bandera, Susana Sánchez gazteak.

IBILBIDEA

Gaeko 23:00etan irtengo da bere gordelekutik, Nafarroa Etorbidetik hain justu, eta apurka-apurka herri erdira gerturatuko da: Cerrajeratik Hotel



Lorea del Fresno, Susana Sánchez, Nagore Altzelai eta Pepi Gorosabel dira banderadunak.

Mondragon oster, handik Kontzeziñora eta Kontzeziñotik Maalara egin eta gero, Portaloitik sartuko da danborrada herriko plazara bidean.

Aurtengo karroza, berriz, trenaz izango da. Horrelaxe erabaki zuten egileek: Jesu Mari Egidazuk eta Crisanto Margusinok alegia. Eta behin trenaz eginda, bide batez, betiko trenaz errebindikatzeko aprobeztatu dute.

KANTUAK

Eta trenaz gain, jakina, ibilbiderako kantuak ere gertu

dituzte. Lehenengo lau kantuak Sarriegirenak izango dira: Donostiako Martxaren konpasekin aterako dira, Cerrajeratik Kontzeziñorako tartean, berriz, Diana joko dute eta Garibaira heldzean, Tatiagoren doinuak nagusituko dira. Segidan apurtxo batez geratu eta *Idiyarena* baltsea joko dute; Maalara bidean, berriz, Solozabalen *Debako Martxa* entzun ahal izango dugu eta Seber inguruan Pantxoa eta Peioren *Batasuna* kantua. Bukatzeko, ibilbidean kanturik entzute-

GORA ARRASATE! TANBORRADAKO HIMNOA

Hitza: Karlos Urbieta
Musika: Juan Arzamendi

GORA, GORA!
ARRASATE!
GORA ARRASATE!
GORA ARRASATE!
AURRERA, MONDRAGOENKO HERRIA!
AURRERA, ARRASATEARRAK!
AURRERA, GURE HERRI MAITEA!
AURRERA, BAI, BETI AURRERA!
ARRASATEK
SORTU DITU
GIZONIK JAKINTSUAK
GAI ASKOTAN
KIROLARI ONENAK
LAGILE BIKAINENAK
SAN JUANETAN
GOAZEN POZIK
DANBORRAZ ALAITURIK
BAZTER DENAK
UDALA MENDI
GAILUR ZORROTZENA
GURE HERRIEN
ZAINDARIA
ZURE BARRUKO
GALTZARU BEZELA
GURE JENDEA
HAIN GOGORRA
EUSKAL HERRI!
GORA BETI!
SAN JUANAK JAI HAUNDIAK
BAI ERE SANTAMASAK
EUSKAL HERRI!
GORA BETI!
GORA! GORA! ARRASATE!



ko aukera izan ez duenak, plazan abesti guztiak batera entzuteko aukera izango du, hau da, aipatutako guztiak gehi Arzamendiren *Gora Arrasate* eta *Maritxu*.

Azken urteotan moduan, aurten ere Néstor Maidagan izango da horren guztiaren gidari. Ekainean hasita, astean pare bat aldiz elkartu dira gehienak entseguetarako; San Viatorren egin dituzte aurten.



Estella ortopedia



Javier Estella, ortopedia teknikari tituluduna
OSAKIDETZAREKIN ETA LAGUN AROREKIN HITZARTUA

Matxiategi 5 • Tel.: 943 76 19 63 • BERGARA

RPS 421/97

Etixerako laguntza teknikoa



Ondo pasa dezazuela denok!

Kirol Ortopedia



Mastektomiak ▶



Neurrira eginiko plantillak. ▶

Oinetakoak



Herriko taldeak txosnagunean

Ekainak 23, zapatuan 23:00etan

ANGER

Anger taldea 1997. urteko irailean sortu zen Musakolan. Hasiera baten, taldea Arkaitz (ahotsa), Beñat (gitarra), Ekain (baxua), Lopez (bateria) eta Pavonek (gitarra) osatzen bazuten ere, gero Pavonek taldea utzi eta Albertok ordezkatu zuen. Debagoienera zein Gipuzkoa aldean nahiz Extremaduran kontzertuak emanez, euren soinua landu dute; batez ere, hardcore-metala lantzen dute, geroago eta emaitza hobekin, gainera; izan ere, iaz Euskadi Gaztea maketa lehiaketan entzuleen bigarren saria jaso zuten eta, are gehiago, Villa de Bilbao lehiaketan ere bigarren txandara igarotzea lortu zuten. 2001. urtea euren urtea izango ei da, duela gutxi DDT diskoetxearen laguntzarekin CD-maketa kalera-tu dute-eta estreinako.



VERSUS

Zuhaitz (bateria), Irati (flauta), Amaia (biolina), Iker (baxua) eta Txinok (ahotsa) osatzen dute Versus taldea, Aretxabaleta eta Arrasate artean koka dezakeguna.

Aurretik, horietako batzuk Abaddon izeneko proiektua osatu zuten eta gerora, taldekide berriekin, eskaintza aberastu egin zuten. Proiektu berri honekin 2000. urtetik daramate eta dagoeneko zenbait emankizun eskaini dituzte, batez ere bailaran. Ez dute musika estilo bakarra jorratzen. Hain zuzen ere, rock-and-rolla, reggaea, thrash-metala edo erdi aroko musika jorratzen dute tarteka, euskaraz, gaztelaniaz zein ingelesez. Hala ere, batek baino gehiagok, Txinoren ahotsa dela eta, Pearl Jam taldearen antzekotasunagatik gogoratzen ditu.



NUMEN

1997an Josu (bateria), Unai (gitarra) eta Jabok (gitarra) Numen taldea osatu zuten. Handik gutxira, Aritz (ahotsa), Lander (baxua) eta Haimar (teklatura) batu zitzairen. Zuzeneko gogor eutsi (Avulsed, Anasarka, Centinex, Jesus Martyr eta beste batzuekin batera) eta tartean Josuren ordez Largo sartu zen taldean. Euren black-death proposamenak geroago eta kritika hobekak jaso eta "Haize sorginduen intziriak" lana kaleratu zuten Wolf Recordsen laguntzaz. Horren bitartez, Villa de Bilbao lehiaketarako sailkatu ziren, eta duela gutxi oboea eta flauta jotzen dituen Mikel taldekidea batu zaie. Orain, berriz, beste lan bat prestatzen dabilta buru-belarri.



STATO

Zarugalde, 14 • ARRASATE • Tel.: 943 79 44 88



Body piercing-a, gorputzeko edozein tokitan, 5.000 pezeta.

Zulatu, tatuatu eta New York ezagutu!!

Tatuaje edo body piercing bat egin ezkerro, New Yorkerako bidai baten zozketan sartuko zara. Bi pertsonentzat, astebeteko egonaldia.

Herriko taldeak txosnagunean

Ekainak 26, martitzena, 20:00etan

FASE TERMINAL



Jon (gitarra), Borja (baxua) eta Erraitz (bateria) duela urte eta erdi elkartu eta gaztetxean entseatzen hasi ziren. Eskorbuto izan zuten oinarri hasieran, baina gerora punk-

rock, Oi! eta rock-and-roll musika ere jorratzen hasi ziren. Lehenengo kontzertua 2000ko uztailean eman zuten, Arrasateko gaztetxean, eta ordutik hona, inguruetan emankizun gehiago egin dituzte. Batez beste 17 urte dituzte eta material guztia ez dute oraindik eskuratu, baina dagoeneko nolabaiteko maila erakutsi digute zuzenekoetan zein aukeratutako bertsioetan (Thin Lizzy, La Perrera, Cock Sparrer, RIP, Cicatriz...). Gaztelaniaz abesten dute, baina euskarazko abestirik egiteko asmoa dute. Laster, zerbait grabatzeko asmoa dute, gehienbat egiten dutena hobeto entzun eta ikasteko.

DES-KONTROL



1996 eta 1997 urte artean sortu zen punk-Oi! talde hau eta Aritz (ahotsa), Magu (baxua), Garrulo (gitarra), Osoron (gitarra) eta Peterrek (bateria) osatzen dute. Iskanbila zein

Zakarrak taldeen ildoei jarraitu eta kontzertu dezente eman dituzte. Gerora, 1998an zazpi abestiko mini-CDa kaleratu zuten Mallorcako Bronco Bullfrog diskoetxearekin, eta Bizkaian eta Gipuzkoan egindako emanaldiez gainera, Galizian ere izan dira bizpahiru aldiz. Euskaraz abesten dute, eta bizpahiru kantu gaztelaniaz. Horien artean, bertsioak jotzea gogoko dute, eta horren harira, dagoeneko grabatuta dute Beltza Recordsek kaleratuko duen singlea, Vomito, RIP eta Puñetazo taldeen kantuak izango dituen. Bestalde, udan beste CD bat grabatzeko asmoa dute.

ARKADA SOCIAL



Brian (gitarra), Hodei (ahotsa eta baxua), Unai (gitarra) eta Juliok (bateria) 1998ko martxoan, Intumisio Egunean hain justu, lehenengo kontzertua eman zuten Arrasateko Irati tabernan. Arrasateko gaztetxean entseatzen dute eta hasieran Eskorbuto eta RIP taldeen bertsioak jotzen hasi baziren ere, gaur egun gehienbat punk eta Oi! musika jorratzen dituzte, estiloetan mugarik jarri nahi ez dutela onartzen badute ere. Dagoeneko hogeituztutik gora egin dituzte, bailarako herri gehienetan zein Andoain, Zumarraga eta Bilbon, batez ere Kañeria 13, Des-Kontrol eta Iskanbilakoeekin. Bere kasa CDa grabatu zuten, argitaratu gura izan ez dutena, eta aurrerantzean ahal beste entseatu, zuzenean jo eta zerbait grabatu nahiko lukete.



OZAETA JAUREGIA

Tel.: 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29

BERGARA



LASA

Jatetxea

Jai zoriontsuak pasau!



udalaitz

*Janzteko duzun
aukera berria!*



Erdiko kale, 42
ARRASATE
943 77 00 68

Urrun heldu al daitezke enpresak garraio zerbitzu aurreratu bat gabe?



EZ

Begiratu Europa berriari eta merkatu bakarra ikusi. Herrialde bakar bat balitz bezala erantzuteko ahalmena duen garraio sare batekin.

Begiratu etorkizunean pentsatzen duten enpresei. Ikusi jada eskatzen ari direla lojistika eta garraiorako aukera berriak. Eta erantzun egokiena eman.

Begiratu ekonomia berriari. Eta ikusi garraioa eta distribuzioa ezinbestekoak izango direla. Nola hitzegin genezake Internet-en bidezko salerosketetaz, primerako garraio zerbitzu bat gabe?

Hauek dira, **Guipuzcoana, Deutsche Post Euro Express** taldean sartzera bultzatu duten arrazoiak, Europako garraio eta distribuzio sare aurreratu baten partaide izateko: **Euro Express**.

Emaizak bidean daude.



Erantzuna hemen duzu.

Mondragoeko labela

Domeka gauean herriko plazan jango duten okela kalitate onekoa izango da aurten ere, zalantza barik, Santa Barbara gainean ehizatutako dragoiarenak izango baitira AEDko kideek erreko dituzten 500 txuletak.

Gaueko 09:00etan izango da afaria, primerako txuletak dastatzeko aukera izango da piperrekin eta entsaladarekin eta postrerako gazta eta irasagarra izango dira. Bapo afaldu eta gero, janaria jaisteko, zer hobeto dantza egitea baino. Aurtengo musika eskaintza ikusita ez dago aitzakiarik: Son Caliente taldearen dantza kubatarrak gorputza astintzeko modukoak izango dira; horrez gain, perkusio taldea ere berritasuna izango da aurten; ohiko herriko taldeek ere ez dute hutsik egingo, eta, hala, txalaparta taldea, gaiteroak eta trikitilariak plazan ari-



tuko dira; halaber, bertsolariak saioa egingo dute, teman ari-tuko dira Agirreazaldegi eta Estiballes bertsolariak; eta dantza egiten segitu gura duenak Egan taldearekin izango du horretarako aukera. Hortaz, aitzakia gutxi aulkian jarrita geratzeko. Hori gauaren hasiera baino ez da izango. Hortik aurrera gerta daitezkeenak ezin ondo jakin, baina arrasatearren umorea ezagututa, aspertzeko

paradarik ez da izango.

Aurten ere 24an, gauean, herriko plazan afaldu eta jai horretan esku hartu gura duenak aurrez txartela eskuratu beharko du. Urtetik urtera gero eta lagun gehiago elkartzeko dira, baina aurten, aurreko urteetan moduan, 500 txartel jarriko dituzte salgai; hortaz, lasterren ibiltzen direnek izango dute bapo afaltzeko aukera.



Nagore Aranburu AEDko kidea eta Dragoi-janeko antolatzaileetarikoko bat da:

-Aurreko urteetan txartelak agortu egin izan dira. Aurten baduzue hori konpontzeko biderik?

Gure asmoa aurten ere 500 txartel ateratzea da. Herriko plazan biltzeko jende nahikoa dela iruditzen zaigu. Bat baino gehiago geldituko da afarira joateko gogoarekin, baina zer egingo diogu, bada...

-Herritarrek jakin nahi izango dute txuletak nondik ekarritakoak diren. Euskal labela eskatuko dute...

Lasai egon daitezke, okela, hemengo dragoiena da eta, Goikobalun hazitako dragoien okela hain zuzen ere... primerakoa beraz!!

2001.EKO AUTORIK ONENA EUROPAN

Alfa Romeo 147

Cuore Sportivo

Ikus ezazu
Kanpazar-en!



KANPAZAR

FIAT



Tailerra: Bizkaia etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 41 98 • Erakusketa: Araba etorbidea, 32 • Tel.: 943 79 77 66 • ARRASATE

Dragoiaren kondaira, kalean antzeztua



Mondragoeko dragoiaren kondaira ez dakizuela? Aurtengo jaietan ez duzue aitzakiarik izango istorio horren berri ez izateko. Eta istorioa dakizuenok, zuen begi aurrean irudikatuta ikusi ahal izango duzue, jakina, su, txinparta, bengala eta txapligu askorekin; izan ere, Gasteizko Ksusta taldeak *Gaeko Sugarrak* izeneko "kalejira mitologiko-piroteknikoa" eskainiko digu ekainaren 22an, 23:00etatik aurrera. Hiru ordu laurdeneko ikuskizuna izango da, eta dragoia Arrasateko kaleetatik paseoan ibiliko da, txosnagunera iritsi arte. Han, totema erreko da. Perkusio afrikar doinuek lagunduko dute emankizun osoa.

KARIBEKO DOINUAK

Baina dragoia ez da Arrasateko kaleak berotzen arituko den bakarra izango. Doinu bero-beroeekin etorriko zaizkigu Son Caliente congako lagun kubatarrak. Perkusioa,

teklatuak, pianoa, turuta eta beste hainbat instrumentu jo, abestu eta dantza egiten dute 13 lagunek. Kubako eta Karibe osoko doinuez -guajira, boleroa, txa-txa-txa, mamboa, rumba, conga, merengea...- osatutako errepertorioa eskainiko digute San Juan Egunean. Euskal Herrian eta Espainian guztira 44 kontzertu eman zituzten iaz, eta oso harrera ona izan zuten, gainera.

Karibeko doinuak baino, erromeriakoak gurago dituztenek Gaubela eta Etzakit taldeen emanaldiekin gozatzeko aukera izango dute. Eta, jakina, urteroko musikari lagunek ez digute hutsik egingo: txistulariak, gaiteroak, trikitilariak

eta dantzariak ere hortxe izango ditugu. Horrez guztiaz gain, Incansables txaranga ere kalejiran ibiliko da.

KALE ANTZERKIA

Antzerkiak protagonismo handia izango du baita ere, umeendako eta helduendako antzezenekin. Trapu Zaharra talde donostiarrek *Paquetito* lana eskainiko du ekainaren 25ean. Zezena hiltzeko prest zegoen toretzailea dugu Paquetito; halako batean, komunera joateko gogoa sartu zitzaion, "segitian" itzuli-zela esanez... baina ez zen sekula itzuli.

Umeendako apropos pentsatutako kale animazio ekintzak ere izango dira: bata, zapatu eguerdian, Goloka taldearen eskutik, eta, bestea, astelehen arratsaldean, plazan; han, Panta Rhei taldeak *Saraba* antzezlan eskainiko du.

Kale giroa pil-pilean izango da, hortaz, Mondragoeko jaiak irauten duten bitartean. Ohiko girotze ekintzak ez dira faltako: txapliguak, bonba japoniarrak, erraldoi eta kili-kiak, su artifizialak... eta beste hainbeste.



SEGUROS S.L.



ZURICH
ASEGURUAK

Casimiro Briz Salinero
Aseguru-Aholkularia

Bulegoa: Eskatu Pabilioia
Araba Etorbidea, 3-2. solairua
Tel.: 943 79 71 52 • Faxe: 943 79 42 35
ARRASATE



Beatriz

oinetakoak

1946-2001

*Urteetan bidea elkarrekin egin dugulako
eskerrik asko eta zorionak Arrasate!*

Erdiko kale, 11 • ARRASATE • Tel.: 943 79 14 33





Zure
etorkizunerako
biderik onena



Hezkuntza Eskaintza

Batxilergoak

- Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoa
- Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa
- Batxilergo Teknologikoa
A eta D Ereduak

Erdi Mailako Heziketa Zikloak

- Ibilgailuen Elektromekanika
- Kontsumorako Ekipo Elektronikoak
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mekanizazioa
- Erizaintzako Laguntza Osagarriak
D Eredua

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Fundizio eta Pulbimetalurgia Bidezko
Produktzioa
- Metal Eraikuntzak
A eta D Ereduak

Matrikulazio datak

Batxilergoak:

Uztailaren 2tik 6ra

Erdi Mailako eta Goi Mailako zikloak:

Uztailaren 2tik 6ra

Goi Mailako zikloak, epe berezia:

Uztailaren 23tik 27ra

Ordutegia:

Goizeko 9:00etatik, 14:00etara

Sta. Teresa, 25
Tel: 943 79 83 00 • 79 44 47
Faxa: 943 79 44 37
20500 ARRASATE

Etxebarri auzoa, z
Tel: 943 79 79 00 • 79 79 4
Faxa: 943 77 09 5
20550 ARETXABALETA



San Juan egunean, nagusiak protagonista

Urtero legez, San Juan egunean omenaldia egingo diete 80 urtetik gorako arrasatear guztiei. Gainera, hurbiltzen direnen artean, nagusienek onspen berezia jasoko dute.

12:30ak inguru hasiko da ospakizuna, Garibai kaleko Abaroa erretiratuen etxean, ohiko moduan. Ordu horretan, udal ordezkariekin elkartu gura duten adineko guztiek hitzordua dute. Udalaren alde-tik, alkatea eta hainbat zinegotzi joango dira Abaroara. Jeneralean, 50 bat lagun elkartu ohi dira jaialditxo horretan.

TXAPELA ETA LOREAK

Denek elkarrekin bazkaltzeko aukera izango dute Abaroan bertan. Gerora, guztiek ere opari bana jasoko dute; azkenik, taldeko gizon nagusienari txapela emango diote udal ordezkariak eta ema-



kume nagusienari lore sorta ederra. Iaz, omenduak Cándido Moraleja eta Isabel Zabarte izan ziren. Ea aurten zeintzuk diren zortedunak!


Bazkaria, opariak eta gainerako sorpresa gehienak uda-

laren eskutik etorriko dira. Euren esku dago, esaterako, bazkariko plater sorta auke-ratzea; hortaz, domeka arte itxaron behar, zein gozoki jan ahal izango diren jakiteko!

EKITALDIAK URTE OSOAN

Ospakizuna berezia izango da San Juanetan egiten delako, baina ez, ordea, nagusiekin gogoratuz Arrasaten antolatzen den jai bakarra delako; urte osoan izaten da aukera gure edadetuak omentzeko. Adibidez, auzoetako jaietan ohitura bihurtu da bizilagun nagusienei ekitaldi bereziren bat egitea, opari eta guzti; eta, jakina, hor dago baita SUD-Cek urtero antolatzen duen Erretiratuen Eguna. Maiatzaren bukaeran ospatu zen azkeneko eta, betiko moduan, esku hartze izugarria izan zuen. Egun horretan Musakolan batzen dira antolatzaileak eta erretiratuak, eta taldeko nagusienei oroigarri bana ematen diete; kasu horretan, Cándido Moraleja eta Brígida Monje izan ziren.

S. Carrascal S.L.



Hemen egindako

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Bestelako armairuak
- Etabar

San Juan jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

Fabrikan erakusketa: Gipuzkoa Etorbidea, 6-1 A. Tel./Faxa: 943 79 01 82

Txokolatea hartu, eta arineketan egitera!

Ez dira San Ferminetakoak modukoak, baina ez dira makalak Arrasateko entzierroak!

Hiru entziero izango dira aurten, ohi bezala: lehenengo San Juan egunean, domekan; bigarrena astelehenean eta azkena martitzenean. 09:00ak aldeira irtingo dira zezenak Ferrerias kaletik; Erdiko Kaletik joko dute, Iturbidetik igaroko dira eta Laubideko zezen-plazan bukatuko dute ibilbidea bai animaliek baita entzierroa egingo dutenek ere.

Adardunak ere aukerata daude dagoeneko. Urteroko leku beretik etorriko dira, Orozkoko Manzabeitia ganadutegitik alegia. Handik aurrera, egunero-egunero albaitarien bisita jasoko dute zezenek, eta ez gaur egun hain boladan dauden gaitzengatik, ez pentsa, baizik eta arauak hala agintzen dutelako. Entzierroen ondoren, bigantxak askatuko dituzte zezen-plazan, zaleen gozamenarako.

Batzuek esango dute horrek guztiak ez duela inongo berezitasunik. Eta egia da. Baina komentatu digutenez, entzierroan esku hartzen duten guztiek ez dute arineketan egiten, edo ez, behintzat, behar den



moduan.

OHITURAK, OHITURA

Itxura denez, arrasatear goiztiar askok ez diote adardunen irteerari itxaroten; horren ordez, Iturriotz edo Kontzeziño aldean izaten dira zain, eta handik hasten dira lasterka egiten. Oso gutxi egiten dute ibilbide osoa. Kontuak kontu, zezen-plazaren ondoan 400 edo 500 bat lagun elkartzen dira, eta handik bertatik hasten dira. Sustoak edo erorketak galarazteko, goizean goiz larregi ez nekatzeko-eguna luzea baita- ala doan sartzeko izango ote? Auskalo! Ez da izango, ordea, ohitura hau Arrasateko entzierroen bereizgarri:

azken batean, Iruñeko entzierroetan jendeak halako tranpatxoak egiten baditu, zergatik ez, bada, hemen?

Dena dela, entzierrozaleek lagungarria izango dute ohitu-

ra hori aldatzera animatzeko: 08:15ean, plazan, txokolatejana izango dute. Indarrak hartzeko aukera bikaina!

Herriko entzierroek ez dituzte, zorionez, bestelako albisterik eman. Udaltzaingoa da segurtasunaren arduradun, eta euren esanetan, "oso entzierro garbiak dira Mondragoekoak. Zezenak lasai etortzen dira". Lan gutxi izaten dute, hortaz: Garibain zirkulazioa eten behar izaten dute 08:30etik aurrera, ordubete; bidegurutzeak zaindu eta erregulatu, eta zezen-plazako sarrera zaindu eta ateak ireki eta itxi, hori da euren lana. Seguru asko, arrasatearrek entzierroa egiteko duten modu bereziak mesede egingo die udaltzainei!



King's
Ile apaindegia

Zure udako look berria

Zarugalde 23, behea. • ARRASATE
Tel.: 943 79 84 88

ARRASATE
GARBIKETAK S. COOP.

San Joanetan girorik ederrena opa dizuegu

Uribarri, 20 ARRASATE
Tel. eta Faxa: 943 79 70 39

ARRASATE
AUTOZERBITZUA

Jaietan, ondo pasatu!

Uribarri, 20 ARRASATE
Tel.: 943 79 52 76

LANBIDE HEZIKETA ILE APAINDEGI ETA ESTETIKA IKASTAROAK

Erresuma Batuko 3. mailako titulu ofiziala

Europako titulorik ospetsuena

Gasteizen dauzkagun zentroak ANCEPE diploma



Independentzia, 22. 1 - Gasteiz
Tel.: 945 2 07 32

www.academiakaty's.com

C&C
LLONGUERAS

Olagibel, 6 behea • Gasteiz
Tel.: 945 2 03 60

Gainera, honako ikastaroakeskaintzen dizkizugu:

EDERTASUN SAILA

Kiromasajea
Kirol masajea
Depilazio elektrikoa
Kinesiologia

OSASUN SAILA

Klinika laguntzailea
Hautzaintza
Geriatría

Oporretan bidaia bakoitza oparia da



ARRASATEKO

bulegoetan nahi duzunerako egongo gara, taldeko bidaiak, eztei-bidaiak, lan bidaiak edo oporretarako abantaila handiagoak aurki ditzazun.

C.I.E. 68

Otalora lizentziatua, 23
Tel.: 943 79 05 00

Kontzeziño kalea, 2
Tel.: 943 79 19 44

VIAJES
ECUADOR
GRUPO CARLSON WAGONLIT TRAVEL

Salbe San Juan

Aldai gaineko udal biltegitik atera eta udaletxeko areto nagusira eraman dute Arrasateko zaindaria, San Juan Bataiatzailea, urtero moduan. Eta, hantxe egongo da hilaren 23a arte, San Juan bezpera arte, alegia, orduan eramango dute-eta omenaldia jasoko duen lekura: parrokiako aldare nagusira. Eta han, urtero legez, Salbea kantatu eta jaien amaiera arte parrokian geratuko da. Gero, berriro eramango dute Aldaiko biltegirara, hurrengo urte arte.

Eta, ohiturak agintzen duen moduan, zinegotzi gazteena joango da aurretik bandera eramanez, bandera zurimorea, patroiaren irudia duela. Alkatea izango da azkena, udaltzainburuak lagunduta. Tartean, gainerako zinegotzietako batzuk joango dira patroia eramaten.

JOANES BATAIATZAILEA EDO SAN JUAN

“Aitzindaria” goitzenarekin ere ezagun da Arrasateko zaindaria, Ebanjelioaren arabera, Kristautasunaren aitzindari judua izan zen-eta (k.o. 28. urte inguruan hila). Jesukristoren lehengusua zen. Basamortura erretiratu zen gazterik, eta jarraitzaile batzuk berarengana joan eta gero, Mesiasaren etorrera iragarri

zuen Jordan ibaiaren ertzean. Bitarte horretan, San Juanek jendea bataiatu zuen fede berrian, baita Jesukristo bera ere. Baina behin, Galilea eta Pereako tetrarka Herodes Antipas-en gortera joan zen. Han, jendaurrean, Herodesek salatu egin zituen bere anaia-aren emazte Herodias-ekin zituen harremanak. Horren ondorioz, Herodesek San Juan giltzaperatu zuen; eta gero



burua moztu zioten, Salomek, Herodias-en alabak, hala eskatuta.

Udako solstizioarekin batera ospatzen da San Juan eguna, garai horixe aukeratu zuen-eta Elizak santu hori omentzeko.




EROSKI
ARRASATE

*San Joan zoriontsuak
opa dizkizuegu*

Profesionalen arteko norgehiagoka

Domekan, San Juan Egunean, profesional mailako pilota jaialdia egingo da Uarkape udal pilotalekuan. Puntako pilotariak izango dira aurrez aurre eta bi partida jokatuko dira 17:00etatik aurrera. Partidu nagusia Unanue-Errasti eta Olaizola II.a-Barriola bikoteek jokatuko dute. Aurretik, bigarren mailako pilotariak jokatuko dute partida: zein baino zein arituko dira Salaberria eta Galartza IV.a Berasaluze VIII.a eta Albizu bikoteak. Sarrera 3.000 pezeta kostatzen da eta telefono honetan aurrez eskura daiteke: 656 79 94 23.

Edozelan ere, domekan bertan ere sarrerak salgai jarriko dituzte Uarkapen, 16:00etatik aurrera.



Gaur, finala:

Gaur, 20:30etik aurrera, Koadrila arteko I. txapelketako finala jokatuko da.

Lehenengo partidua hirugarren eta laugarren sailkatuak erabakitzeko izango da :

Gaizka - Ugutz vs. Aitor - Oier

Gero, finala jokatuko da:

Asier - Lazkano vs. Gorka - Haimar

Pilota Elkartekoen partida:

Hirugarren partida bat ere jokatuko da gaur iluntzean, San Juan Txapelketako finala jokatu dute herriko pilotariak:

Zugasti - Lazkano vs. Errasti - Zuazubiskar

Jaialdia amaitzeko sariak banatuko dira txapelketan esku hartutako pilotari guztien artean.

Koadrila arteko I. txapelketa

FINAL LAURDENetako emaitzak

Toribio-Pi 21

Asier-Urtzi 22

Iñigo-Isturiz 20

Aitor-Oier 22

Gaizka-Ugutz 22

Asier-Gorka 20

Gaizka-Boludo 14

Gorka-Haimar 22

BOLIÑETE

OILASKO ERRETEGIA
Bertan jateko edo eramateko.

San Juan jai zoriontsuak opa dizkie bere bezeroei

Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 943 79 39 91

Jai Zoriontsuak!



HEMEN
gozotegia
Brasileña kafeak
Kruasandegia

Sebero Altube, 8 • Tel.: 943 79 94 99 • ARRASATE

Arrasate Irratia San Juanetan egunero zuzenean 11:00etatik 14:00etara



Urtero moduan, Arrasate Irratiak San Juan jaien jarraipena egingo du. San Juan bezperatik, ekainaren 23tik, hasi eta azkeneko kartutxo arte, egunero-egunero, 11:00etatik 14:00ak bitartean saio berezia eskainiko du herriko irratiak. Hortaz, zapatuan hasi eta martitzena arte jaiak nagusi FMko 107.7an. Horretarako, lantalde zabala arituko da jaien gai-

neko elkarrizketak egiten, bai kalean zein estudioan ere.

GAUEKO TXUTXUMUTXUAK

Gaueko gorabeherak kontatuz hasiko dugu egunero jaien gaineko saioa. Horretarako, goizean goiz kazetariak kalea irtingo dira parrandazaleen bila. Euren kontatuko dute gauak zer eman duen. Gatz eta

piperraz esnatzeko aukera zure irratian.

Baina besterik ere izango da. Eguneko protagonistekin berba egingo dugu hitzorduak jakiteko. Jaietan egonik, musika ere lagun izango da goiz osoan.

Zelan ez, telefonoak zabalzabalik izango dira arrasatearren iritziak jasotzeko. Hona telefono zenbakia, parte hartu nahi baduzu: 943 71 17 31.



Irratian izango dira...

- Takolo, Pirritx eta Porrotx. Zapatuan, 12:00etan.

- San Juanetan tabernetan entzun ahal izango diren kantuen gaineko erreportajea. Zapatuan, 13:30ean.

- Kuleru eta galtzontzilo lasterketaren gaineko esketxa. Domekan, 12:15ean.

- Mikel Urdangarini elkarriketa. Astelehenean, 12:30ean.

- Etzakit taldearekin solasaldia. Astelehenean, 13:30ean.

- Bixamonaren inguruko esketxa: Martitzenean, 11:45ean.

Eta beste hainbat ere bai!!

J. Markiegi.

Gizonezkoen moda

Olarte, 2
Tel.: 943 79 15 32

JAI ZORIONTSUAK



A R R A S A T E



Biteri etorbidean dago aterata argazki hau. 1957. urteko ekainaren 26a zen, San Juaneta-ko hirugarren eguna hain justu ere. Biteri eskolen lorategirako ate aurrea da ikusten den hori; izan ere, sokamuturrak bere bidetik apurtxo bat irten eta eskolen lorategi barrura sartzeko ohitura zuen, han babes-

ten zen jendearen artean makina bat susto eta barre eraginez. Gure berriemaileak nostalgiarekin gogoratzen du sokamuturra; sekulako giroa eta poza eragiten ei zituen; berriemailearen ustetan, gaur egun ezinezkoa da antzekorik aurkitzea. Honakoak agertzen dira argazkian, etzanda, ezkerretik eskumara: Aurelio González, José María Iñarra, Cecilio

Berezibar eta atzekoa José Antonio Inda. Espaloian eserita daudenak, berriz, ezkerretik hasita: Angel Lasagabaster, Angel García, Jesús Uribe, Carlos Olabe, Carmelo Amozarrain eta Aiaitui "Uricha". Makurtuta, berriz, ezkerretik eskumara: Roberto Egidazu, Ignacio Zubizarreta, Agustín Bolinaga, Julito González eta Antonio Altube. Eta

besoak zabal-zabalik dituena Juan Carlos Aranburuzabala da. Atzean, tente eta eskua luzatuta duena Angelita Elgoibar da, hurrengoa ezezaguna eta ondoko mutikoa Roberto Beltrán de Gebara. Bukatzeko, ate ondoan dagoena Garai da.

Argazkia eta berriemailea:
 Amaika-gazte elkarteko bazkide bat.

Year OINETAKOAK

**PATRICIA
 CLARKS
 YANKO
 MASCARÓ
 LOOKY
 24 HRS
 NATURE
 NOD
 PIELSA
 CATS
 P.MIRALLES
 KOLLFLEX**

Biteri, 13 • ARRASATE • 943 79 21 71
 Barrenkale, 9 • BERGARA • 943 76 22 86

KAJOI

www.ostantz-arrasate.com

OSTANTZ



Sanjuanetako hirugarren egunean dago aterata argazki hau, herriko plazan; hain justu, Urizar tabernaren aurrean, gaur egun Kajoi taberna denaren aurrean. 1955.

urtea zen. Eta, sekulako giroa zen jaietan, argazkian ikusten den modukoa, bero-beroa. Gure lagunak ere gustura asko zebiltzan jaietan barneratuta, eta argazkilari profesionala inguruan zebilela-eta, erretra-

tua ateratzeko aprobetxatu zuten, etorkizunerako irudia. Ezkerretik hasita hauexek dira argazkikoak: Rafael García, Juanito Iturbe, Carlos Ezkibel, Mendizabal eta azkena Eusebio Iñarra. Lurrean eserita

dagoena, berriz, jaietara etorri zen bilbotar lagun bat da.

Argazkia eta berriemailea:
 Eugenio Ibarra.



Marga

j a n t z i a k

Estilodun arropa

*San Juan jaiak
 ondo pasa!*

Iturriotz, 21. Tel.: 943 71 17 40



Urte osoan zure alboan
San Juanetan suaren beroan
jaiak bizi geurean.

Ibai-Arteren partetik
jai zoriontsuak izan



Urrats / Ehune / Etxe Mobiliario / Eya Sukaldeak / Oihana / Epelde / Foto Imagen / Ikatz / Tomas / Phildar / Seguros Elorza / Kutxa / Euskadiko Kutxa / La Caixa / Tokion / Eroski Bidaiak / Karmele / Zubiaga / Aldedi / Arregi / Arte / Aranzabal / Eya / Milar Elkoro / Hemen / Muruamendaraz / Onandia / Landaluze / Otamendi / Parlance / JG Impresión Digital / Anboto / Izozkitegi / Feli / Erosle / Kili-Kolo / Belem / Maza / Flash / Gili-Gili / Haurtxoa / Klas / Laket / Lasagabaster / Los Vaqueros / Luko / Mabel / Marga / Markiegi / Troko / Ume / Z-R / Zur-Lur / Arrasate Kirolak / Okendo Kirolak / Uriarte Sport / Hire / Ariane / Bea / Nerea / Sikol / Titare / Altuna / Lore / Zabaleta / Zarraoa / Ceciaga / Lilura / Alonso / Beatriz / Egizabal / Totem / Txikiak / Txuntxurunberde / Yoar / Zabala / Zubia / Beinke / Galeria 44 / Garay Saskiak / Garagorri / Tamayo / Portaloi Kioskoa / Kajoi / Lorategi / Monte



Herriko plazara goaz jaietako erretratu zahar honekin, kioskoaren aurrealdera, hain justu. Argazkia 1963koa da eta agertzen den koadrila, Beti Gazte. Ikusten den moduan, elegante asko zeuden jantzita jaietarako. Eta bazuten horretarako arrazoirik: hasteko, sanjuanetako hirugarren eguna zen, Zezenaren

Eguna, eta sokamuturra egiten zen herriko kaleetan. Horrez gain, Koadrilen Eguna ere ospatzen zuten egun berean eta gure protagonistek lehenengo saria irabazi zuten.

Koadrila musikala zen Beti Gazte, kide askok herriko bandan jotzen zuten, eta jaietan musika kalera ateratzea gustuko zuten, hala, ingurukoei dantzarazi egiten zieten.

Honakoak dira argazkiko

kideak:

1- Josetxu Ugalde; 2- J. Ignacio Sanz; 3- Pedro Lizarralde; 4- Aurelio Egido; 5- Santi Aranburuzabala; 6- Biamonte; 7- Domingo Castro; 8- Iñaki de la Cruz; 9- ezezaguna; 10- José Luis Azkarate; 11- ezezaguna; 12- Juan Mari Aranburuzabala; 13- Mila Beitia; 14- Isabel Aranburuzabala; 15- Esther Telleria; 16- María Jesus; 17- Pili; 18- Mari-

je Azkarate; 19- Maria Luisa Lizarralde; 20- Mari Carmen Vélez; 21- María Angeles Ugartetxea; 22- Ines Arzamendi; 23- Begoña Uranga; 24- Encarna Navarro; 25- Txaro Aranburu; 26- Lourdes Irauegi; 27- Dorleta Lazpiur; 28- Mila eta 29- Ascensión Matilla.

Argazkia eta berriemaileak:

Mila Beitia eta José Luis Azkarate.

GANBARA

Arte eta enkuadernazioak


- *Margolanak, arte lanak.*
- *Laminak, litografiak, akuarelak.*
- *Estiloko markuak, ispiluak.*
- *Aintzinako bitxikeriak.*



Erguin, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37

Ehune

Apainketa



Garibai, 8
Tel: 943 77 11 48
ARRASATE

NISSAN ALMERA TINO BERRIAK

SUTAN JARRIKO ZAITU




*San Juanetan,
zuen alboan*

2.665.000
pezetatik aurrera




SEGURTASUNA



MULTI-LINK
ESEKIDURA



MODULABILITATEA



Nissan Brake Assist

N.B.A BALAZTAK

ALDIBI AUTOAK, S.A.

ARRASATE-BERGARA-ELGOIBAR

Zigarrola 1 - Tel.: 943 71 20 02. Faxe. 943 79 65 65.

aldibi@nortekar.com

